



ttiipi-ttapa

TOKIKOM

erran.eus

2016ko otsailaren 11 | XXXVI. urtea | 655. zenbakia



Niko MINDEGIA

Poloniatik zilarrezko dominarekin bueltan

Gehigarri berezia

Lore eta oihangintza → 25-28

BAZTAN → 38

Udal artxibategia osorik tratatzeko lanean ari dira

ELIZONDO → 37

Elizondoko Lanbide Eskola zentro integratu bihurtu da

ARANO → 33

Zahagi dantzari segida eman diete gaztetxoek

SENPERE → 41

Donejakue bidekoentzat aterpetxea apailatzen

HERRI KIROLAK: Epaileen ikuspuntutik



Iritzi ugari baina, epaia bakarra

Herri kiroleko mundu mailako bi hitzordu garrantzitsu jokatu dira heldu den astean. Otsailaren 18tik 21era Munduko Sokatira Txapelketa Volendamen (Holanda) eta Munduko Aizkolari Azkarrena nor den erabakiko da otsailaren 21ean Tolosako Zezen Plazan. Kiroleariak garaipen bila eta zaleak ere alboan, giro beroa izaten da halakoetan; txapeldunik bada galtzaileraren bat ere behar dela ahanteraino. Ingurumari

horretan, *kale edo bale* errateko ardura duten horien ikuspegia bildu nahi izan du TTIPI-TTAPAK. Bi dira eskualdean herri kirolean epaile aritzen direnak, **Angel Telletxea** eta **Urtzi Loiarde**. Duten arduraren jakitun dira eta denak kontent gelditzea «ia ezinezkoa» dela badakite «bertzeek lana ongi egin dezaten saiatu eta legea betearaztea da gure lana».

ERREPORTAJEA → 4-5

GIZARTEA → 10

1.099 langabetu ilbeltz hondarrean

89 langabetu gehiagok eman dute izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan, langabetu tasa %8,81 igoz.



Mikel ZUBIETA | Etxalarko ingeniaria

«Bizikleten transmisioa hobetzeko mekanika eta elektronika baliatu ditut»

Plateren errendimendua hobetu eta erabilerrazagoa izateko sistema sortu du Mikelek. Enpresa industrialen lehiaketan ideia onenaren saria jaso eta produktua merkaturatzeko lanean ari da orain.

ELKARRIZKETA → 3

OTSAILAREN 1EAN

Bidasoko trenak mendea bete du

Lehen ibilbide hartan, Irungo Kostorbe geltokitik Donezteberako bidea egin zuen. → 21

ZOKKETAK → 56



Txartela egiteko deitu 948 63 54 58ra.

2016 - OTSAILA

• BERRIAK •**Liderrak**

gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan

CIESeK Nafarroa Garaiko
mendialdean

hartu duen

111 udalerrien eremuan ere

**Gure inguruko
albisteak****EXTRAAA!**Ttipi-Ttapa^{rekin}
zure iragarkiak eragin
haundiagoa du**Ttipi-Ttapa
28.000 irakurle**

DIARIO DE NAVARRA	15.000 irakurle
DIARIO DE NOTICIAS	11.000 irakurle
MARCA	4.000 irakurle
GARA	3.000 irakurle
BERRIA	1.000 irakurle
EL PAÍS	1.000 irakurle
EL MUNDO	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	8.000 irakurle

SEXUAREN ARABERAGIZONAK %49,40
EMAKUMEAK %50,60**ADINAREN ARABERA**14-24 URTE %12,30
25-34 URTE %14,90
35-44 URTE %19,70
45-54 URTE %17,60
55-64 URTE %17,70
+64 URTE %21,80**IKASKETA MAILAREN ARABERA**IKASKETARIK GABE %3,30
LEHEN IKASKETAK %15,10
LANBIDE HEZIKETA %23,40
BATXILERGOA %26,80
UNIBERTSITATEA %31,40

Duela urtebete lana utzi eta bizikleten platerak hobetzeko proiektuan buru-belarri sartu zen Mikel Zubieta etxalartarra. «Proiektua lankide batekin batera» gauzatu du eta

«hagitz garrantzitsuak izan dira arteko eztabaidak» erabakiak hartu ahal izateko. Enpresa-industrialen lehiaketara aurkeztu eta ideiarik onenaren saria jaso zuen 2015.

urte amaieran; «2.500 euroko txekea» bate-tik eta «IMHko (Makina Erremintaren Institutua) irakasleen laguntza eta bertako makinak erabiltzeko aukera», bertzetik.

Mikel ZUBIETA ANDUEZA | Enpresa-industrial ideiarik onena

«Proiektuaren etorkizuna ez daukat ziurtatuta, baina saiatu beharra dago»

Garbiñe ALTXU |

Azaldu iezaguzu aurkeztutako proiektua...

Bizikleten kanbioetan plateren kanbioen funtzionamendua piñoen kanbioen funtzionamendua baino maila bajuagoan dago; zakarragoa da eta fidagarritasun guttiago dauka. Horregatik, ahalik eta guttien erabiltzen da, konbinazio aunitz desaprobatxatuz; gaur egungo bizikleta batek 2 plater eta 11 piñoi izanik, 13-14 konbinazio baino ez dira aprobetxagarriak. Nik planteaturiko plateren kanbio mekatronikoarekin, aldiz, aunitzez suabitate eta fidagarritasun handiagoa lortzen da, konbinazio denak aprobetxatu daitezke eta kanbioak sekuentzialki edo automatikoki eginen lirateke. Honela, errendimendua eta erabiltzeko erraztasuna hobetuz. Horregatik, produktu hau bai zikloturisten eta baita hiriko ziklisten intereskoa izanzen dela pentsatzen dugu.

Zer da sistema mekatronikoa?

Mekanika eta elektronika bateratzen dituen sistema bat.

Proiektuan buru-belarri sartzeko, lana utzi zenuen. Ziur zinen ongi aterako zela?

Ez, eta oraindik ere ez nago ziur proiektua aitzinera ateriko denik. Baina dudak kentzeko saiatu beharra dago. Proiektua aitzinera ateratzen ez ba-



UTZITAKO ARGAZKIA

Enpresa industrial idea onenaren saria irabazita, txekea jaso zuen Elgoibarko udaletxean.

da ere, esperientzia positiboa izanzen da segururik. Ikasten arina izanena nire etorkizunerako baliagarria izanzen dela iruditzen zait.

Nola bururatu zitzaizun ideia?

Nik betidanik izan dut bizikletetik afizioa, bai kirolariaren ikuspuntutik baita ingeniariarenetik ere. Bizikletaren gabeziak sentitu ditut eta ideia pila bat planteatu ditut urteetan zehar hauek konpontzeko. Prototipo batzuk ere egin ditut, baina azken ideia honi soilik ikusi dizkiot komertzializatzeko aukera garbiak.

Zenbat denbora behar izan duzu ideia saritua garatzeko?

Urtebete daramat ideia-

KONBINAZIO GEHIAGO

«Gaur egungo bizikleta batek 2 plater eta 11 piñoi izanik, 13-14 konbinazio baino ez dira aprobetxagarriak. Nik planteaturiko plateren kanbio mekatronikoarekin, aldiz, aunitzez suabitate eta fidagarritasun handiagoa lortzen da, konbinazio denak aprobetxatu daitezke eta kanbioak sekuentzialki edo automatikoki eginen lirateke. Honela, errendimendua eta erabiltzeko erraztasuna hobetuz».

rekin. Aukera guztiak aztertu eta hoberenak teknikoki garatu ditut urte honetan. Orain prototipoa fabrikatzea eta ideia praktikara eramatea falta da.

Proiektua gauzatzeko laguntzarik izan al duzu?

Bai, proiektua lankide batekin batera egiten nabil. Proiektua bideratzeko orduan erabaki aunitz hartu behar izan dira eta horretarako hagitz garrantzitsuak izan dira bien arteko eztabaidak. Orain IMHren partetik (Makina Erremintaren Institutua) laguntza jasotzen gabiltza prototipoaren fabrikazioan eta aurrera begira produktua komertzializatzeko kolaborazio-

ak beharko dira; hornitzaile, fabrikatzaile, banatzaile eta inbertsoreekin.

Saria jasotzea espero al zenuen?

Bai. Planteaturiko proiektu enpresariari zentzu handia ikusten diot eta aurkezturiko dokumentazioa eta egindako aurkezpena ongi prestatu nituen.

Zein izan da jasotako saria?

2.500 euroko txekia bat, baina batez ere IMHko irakasleen laguntza eta bertako makinak erabiltzeko aukera. Lortutako sari honekin lehengo prototipoa fabrikatzea espero da.

Proiektua patentatze-ko zein pausu eman behar dira?

Alde teknikotik ideia garbi eta guztiz definituta eduki behar da, alternatiba guztiak kontuan edukita. Alde juridikotik ideiak modu egokian lotu behar dira eta hitz zahatzak erabili. Patentaren erredakzioa ongi egiteko, patenteetara dediazten den enpresa batekin egin beharra dago. **Azken pausua merkaturatzea izaten da. Nolako merkaturatu aurreikusten duzu?**

Nahiz eta merkaturatzea oraindik hagitz urrun dagoen, mundu mailako merkatu bati begira egongo ginateke. Munduan urtero 130 milioi bizikleta saltzen direla kontutan hartuta, merkatu potentziala hagitz handia da.

KIROLA → EPAILEAK KONTU KONTARI

Burua hotz eta begirada zorrotza

Herri kiroletan epaile lanetan aritzen diren eskualdeko bi herritarrekin bildu da TTIPI-TTAPA

Haiek gabe ez legoke lehiaketa, erakustaldi edo apusturik. Eurena da azken hitza; txapela nork jantziko duen erabakitzearen ardura. Horregatik, kritiken jomuga ere izaten dira «denek irabazle izan nahi eta ahantzi egiten da norbaitek galdu behar izaten duela». Afizioz hasi ziren eta urteak daramatzate euren lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen «legea betearazi, bertzerik ez».

Eneritz IRAOLA

Plazetan aurpegi ezagunak dira Urtzi Loiarte (Igantzi) eta Angel Telletxea (Elizondo) epaileenak. 2007an hasi zen Loiarte ofizio honetan «herrian bazen ohitura handia herri kiroletarako eta banituen kuadrilakoak bizkorki herri kiroletan aritzen zirenak. Epaile gutxi zeudela jakin nuen, gustuko nuen mundu hau eta Joselu Retegi herritarren bultzadarekin epaile izateko pausoa ematea erabaki nuen». Telletxea berriz, duela 25 bat urte hasi zen epaile lanetan «Arraiozen soka-

Herri kiroletan, «**sokatira da epaitzeko modalitate zailena**» Angel eta Urtziren ustez. «**Hamasei pertsona dituzu sokari tiraka eta zu bakarrik zaude haien aitzinean. Faltak direla eta, erabaki asko hartu behar izaten dira**».



DATUA

10

EPAILE ARITZEN DIRA HERRI KIROLELAN NAFARROAN

Horiestatik bi dira eskualdekoak. Kopurua hain txikia denez, egun bakarrean proba bat baino gehiago epaitu behar izaten dituzte.

tira taldea osatu guren eta hiru urte aritu nintzen bertan. Baina lana, entrenamenduak... go-



UTZITAKO ARGAZKIA

Urtzi Loiarte, egurraren diametroa egokia ote den neurtzen.

gorra zen niretzat eta sokatira uztea erabaki nuenean, Federaziotik etorri zitzaizkidan epaile izan nahi ote nuen galdetza. Hainbertze erranez erranez, baiezkoa eman nuen».

ARAUDI BEREZIA HERRI KIROLETARAKO

Epaile izateko lehenbiziko lana «herri kiroletako arauak biltzen dituen liburuxka bat irakurri eta ikastea da. Azterketa egin eta gainditutakoan, lehenbiziko urteetan epaile beterranoen ondoan aritzen da hasiberria praktika hartzeko». Biek urtetako esperientzia duten arren, liburuxka horretara behin baino gehiagotan jo behar izaten dutela aitortu dute «zaila da puntu guztiak buruan izatea». Horregatik proba aitzineko egunean ez omen da kalte izaten «liburuxka erreparatzea».

PROBA BAKOITZAK BERE BEREZITASUNAK

Partaide kopuruaren arabera izaten da probetan epaile kopurua «hiru aizkolari ari badira lanean, hiru epaile egonen dira. Erakustaldietan berriz, epaile bakarrekin nahikoa izaten da aunitzetan». Epaileen egitekoa ere aldatu egiten da probaren arabera «adibidez sokatirara joaten zarenean pisaketa bat egin beharra duzu proba aitzinetik. Aizkorara joandakoan egurra neurtu, proba konbinatua denean plaza moldatu dagokion neurriara... eta horretaz gain, bakoitzak bere araudi zehatza du» azaldu dute.

EPAILEEN IRUDIA

Herritarrek epaileen inguruan zein irudi duten galdetuta denetik egonen den arren, «salsa handiegirik» ez dutela izan diote «beti ba-

da bakarren bat ez dagoena sobera gustura egiten duzun lanarekin edo hartzen dituzun erabakiekin baina normalean errespetuz tratatzen gaituzte».



TENTSIOA

«Betik baduzu urduritasun puntu bat eta nik uste hori ere behar dela. Sobera lasai joan ezker agian, zerbaitek ihes egingen dizu. Adi ibili beharra dago»

Urtzi LOIARTE
Igantzi herri kirol epailea

Urtzi LOIARTE
(Igantzi)

«Herri kirolak segida alde guztietatik behar du. Kirolariak behar dira, baina komeniko litzateke epaileak ere gehitzen joatea. Batak bertzea gabe nekez iraunen du eta».

Angel TELLETXEA
(Elizondo)

«Kirolariek irabaztea bilatzen dute eta arauen mugan ibiltzen dira. Malizia puntu horrek badu xarma. Oraindik ez zait tranpa handi batengatik proba bat gibelera bota beharra suertatu»

Aho beroren bat ere suertatu omen zaie inoiz inguruan «beti bada bat edo bertze zerbait erraten dizuna. Baina gero behar den denboran horiek dira isiltzen lehenak. Kejaren bat baldin badute behar den tokian ez dute egiten gero». Beraiek ordea, ez dute sekula arazorik izan eta



HUTS EGITEN BADA

«Proba bukatzen delarik, kirolariarekin solastu eta huts egin dugula onartu, ez dago bertze erremediorik. Ez du bueltarik. Gure lanaren ardura horixe da»

Angel TELLETXEA
Elizondoko herri kirol epailea



UTZITAKO ARGAZKIA

Gurdi-altxatze txapelketan Angel Telletxea lanean.

alde horretatik gustura daude oso. Anekdotagisara ordea, gogoan du Telletxeak, «behin sokatira proba bat ikusten ari nintzela, epaile bati nola tiratu zion ikusle batek zapata bat».

MOMENTUAN ERABAKI BEHARRA

Segundo gutxian erabaki behar izaten dute kirolarien jarduna balekoa izan den «ez dago berriro ere telebistan begiratzerik, momentuan hartzen duzu erabakia eta horrekin segi behar duzu aitzinera» dio Loiartek. Adibide argia ere gaineratu du Telletxeak, «harriprobetan segundo hamarrenetan behar duzu erabaki, harria ongi nibelatu duten, inorkez duen deus ikutu, harrija-sotzailea ongi xutik gelditu den... azkar eta adi egon behar da».

HANKA SARTZEAK

Hanka ere sartu izan dutela onartzen dute eta halakoetan «proba bukatzen delarik, kirolariek solastu eta huts egin

dugula onartu, ez dago bertze erremediorik. Ez du bueltarik. Gure lanaren ardura, pisua, horixe da. Zorionez, plazan gertatzen dena, plazan gelditzen da» dio Telletxeak. Loiartek ere hala dio, «mahai inguruan solasten duzu, tirabiraren bat izan bada baina ez da haratago joaten».

GIROA BERO, BURUA HOTZ

Herri kirolen bueltan, zaleak ez dira urrutiz izaten eta horrek beraien lana batzuetan

zaildu egiten duela aitortu du Loiartek «taldeetako baten herrian jokatzeko bada adibidez herri kirol proba bat, taldearen jarraitzaile guztiak hor izanen dituzu, jendea gehiago botatzen da gainera. Baina burua hotz, zuk zure labiraren egin behar duzu. Bertzeek ongi egin dezaten saiatu eta legea betearazi bertzerik ez».

HARREMAN BEREZIA

Baina, tentsio une guztien ondotik, garrantzitsua «plazan

pasten dena, plazan gelditzen dela da» laburbildu du Telletxeak. Horren erakusle da, epaileek kirolariek eta euren hurbilekoekin duten harreman ona. «Euskal Herri guztian, hainbertze lagun izateko aukera eman dit epaile aritzeak.. Arras kontent nago, giro bikaina dugula gure artean». Ez da harrizkoa, marraren alde batean edo bertzean bada ere, afizio berak lotzen dituelako: herri kirolekiko maitasunak.

«Ez zaigu sekula pasa tranpa handi batengatik txapelketa bat gibelera bota behar izatea»

Urte guzti hauetan ehundaka probatan aritu dira epaile eta kirolariak garaipena lortu nahirik «malizia puntu batekin jokatzeko» dutela badakite. Arauen mugan ibiltzen dira eta «batzuetan euren alde izan dena eta bertzeetan berriz, euren kontra. Arriskatzen denak badaki zer jartzen duen jokoan». Hala ere, herri kirolean nahiko legalak direla iruditzen zaie. Guztiok ezagutzen ditugun tranpa ttikiak hor daude jakina «badakigu segan biltzaileek belarrarekin batera, harrapatuko duten guztia jasoko dutela; harriak eta harriak ez direnak. Ur botila edaten ari zenaren itxura egin eta botila belar multzora bota nahian harrapatu izan ditut». Sokatiran ere pasatzen da, «hamaseiri begira ari zara, zu bakarrik. Eta zu zaudenean alde batera begira bertze aldekoak probesten du tranpa egiteko, berriz begiratzen duzunerako goratzen da eta badirudi hor ez dela deus pasa». Tranpa ttikiak dira, «eta horiek ere kirolaren parte dira» diote irriz.



Nire txanda
Koro IRATZOKI

Gaizki, nere ustez

Gure euskal abizenen kontura aipatu nahi dazuet: ohartu zarete abizen bera bi modu desberdinetan ahozkatzen dela? euskaraz mintzatzen bagara gisa batera, eta erdaraz ari bagara, bertzera.

Konturatu naiz erdaraz ahozkatzen dugunean guztiz gaizki ari garela, ez baitu abizenaren erranahi errespetatzen. Ea adibide hauekin ulertzen nauzen:

- Etxeberria: abizen hau "etxe berria"tik dator, beraz, Etxéberria ahozkatu beharko zen, aldiz, usaian Etxeberría aditzen dugu.
 - Elizetxe: "eliz etxe"tik dator, baina Elizétxe bezala ahozkatzen da usaian. Zergatik?
 - Goikoetxea: goiko etxea da, eta ez Goikoetxéa.
 - Iratzoki: iratz toki da, eta ez Iratzóki.
 - Lizarrondo: lizar ondo da, eta ez Lizarróndo.
 - Mitxelena: Mitxelen gauza bat Mitxelena da, eta ez Mitxeléna
 - Oiartzabal: oihan zabal da, eta Oiartzábal ez da ongi ahozkatua.
 - Telletxea: "teil etxe bat ikusi dut" diogu, beraz, Telletxéa gaizki errana da.
- Bon, nik hala ikusten dut, baina ez dakit Euskaltzaindiak zer dioen...

Ezpala

Aitor AROTZENA

Sinplifikatzeko joera

Venezuelarako hegaldi bat aski izan du telebista kate *objektibo* batek chavismoa, CUP, ETA, Podemos eta *susumcorda* lotzeko. Kontuan hartuz orain artean izan dudana auto istripu bakarra Iruñetik Selektibitateatik bueltan izan nuela, neronek ere eman ditzaket *exklusiba* inpaktanteak: *Ikasketak eta gidatzea ez dira bateragarriak* edo *Selektibitateak trafiko istripuak eragiten ditu*.

Nabarmentzekoak



Gregorio MITXELENA
Arantzan omendua

Arantzako Udalak lehen aldiz antolatutako Trikitixa Jaialdiaren baitan omendu zuten txistulari, akordeoilari, organujole eta atabalariz gain, kultur transmisioaren zubi izan den musikaria.



Niko MINDEGIA
Zilarra Europako txapelketan

Espainiako eskubalo selekzioa azpitxapeladun izan da Europako txapelketan eta partaide izan zen jokalaririk onenetarrena kontent itzuli da zilarrarekin, nahiz minutu gehiegi ez jokatu.



Manuel ARREGI
Oronoztarrek ehun urte

Arkupeak elkarteko sortzaile, zuzendaritza batzordeko kide eta Oronoz-Mugairiko delegatua izandakoak mendea bete zuen ilbeltzaren 28an eta herriari omendu zuten.

Atzera begira → 2006-II-02 / TTIPI-TTAPA 414 zk.



Leitzako aizkolariei buruz Agustin Aranbururen bideoa

Aizkora eta bideogintza. Bere bi afizioak bilduz, Aizkolariek eta lasterkariak bideoa egin eta herriko zineman jendaurrean aurkeztu zuen duela hamar urte Agustin Aranburu leitzarrek. Urtebetez, 22 leitzarren hitzak bildu zituen: aizkolaria, lasterkaria, desafioak eta kirol hauen inguruko pasadizoak laburbildu zituen bi orduko bideoan. Noizbait plazan aritutako 125 leitzar kontatuak zituen eta horien artean «Gartziarena eta Astibia izan dira Leitzako aizkolaririk handienak, baina beste mota bateko lanetan, enbor batera eta, badira marka onak egindako beste aizkolaririk batzuk ere».

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKNA
MEZINASOIA KULTURA NAFARRA



Kolaborazioak

Euskal selekzioa Sadarren

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Euskal Herria Kirola elkarteak jakinarazi du eskaera bat egin duela heldu den hilabetean gizonen futbol selekzioak Sadarren jokatzeko. Lehenbiziko aldia litzateke euskal selekzioak Nafarroan jokatu lukeela. Futbola bortz inporta zaionak ere ulertuko du zer nolako eragin politikoa izanen duen horrek, eta zer nolako zalaparta sor dezakeen. Euskal Herria Kirolak lehenbiziko oharrean erran du Euskal Futbol Federazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren jarreraren arabera jokatu dela edo ez. Xehetasun gehiago jakin gabe, harridura pixar bat sortzen du horrek, kontuan hartuta Iruñean jokatzeko asmoa dagoela (eta dirua Nafarroako ikastolentzat biltzeko). Aukera ederra da euskal selekzioak Iruñean jokatu eta Sadar betetzeko, baina aukera ederra da ere behingoz gauzak bertze modu batera egiteko, eta identitarioki halako inportantzia duen zita bat ongi lantzeko. 'Euskal Futbol Federazioa' deitzen dena, EAE Euskal Autonomia Erkidegoko federazioa baino ez da. Ez legoke gaizki Nafarroako Futbol Federazioari ere eskatzea antolatetaren parte izatea, EAEkoaren maila berean. Ideia hori erridikulutzat ere jo lezake jende aunitzek, Nafarroako erakunde gehienak bezala posibleena delako futbol federazioa ere euskal nortasunarekin deus jakin ez duen navarrista espainolistek zuzenduta izatea. Baina horrek ez du inporta. Nafarroa Garaian hainbertze kostatuta gobernu aldaketa bat egin eta gauzak bertze modu batera egiteko aukera bat ireki denean, ezin dugu betiko eskematan pentsatu. Nafarroako Federazioak EAEkoaren legitimazio bera du euskal selekzio baten parte izateko, eta partidarekin deus jakin nahi ez balu ere, legitimazio hori aitortu behar zaio. Euskal nazionalismotik haratago doan inklusibotasun bat eman beharko litzaioke euskal selekzioari, Nafarroa Garaian aukera bat ireki baita euskal nortasunarekin bat egiten ez duen herritar kopuru handi bat navarrismo espainolistaren orbitatik urrutiratzeko, eta, ez hori bakarrik, gainerako euskal lurraldeekiko batasun sentipen batera hurbiltzeko gai batzuetan. Adibidez, partida horretan Nafarroako bandera ikurrinaren pare tratatzea keinu inteligente bat litzateke, nahiz eta ikurrina Nafarroako bandera bat izan, ez baita nafar guztien bandera. Hainbertzerako eman duen izenaren aferekin berdin. 'Euskadiko selekzioa' deituta garbi adierazten ari gara kanpoko zerbait datorrela Iruñera, nahiz eta jokalarri nafarrek jokatu. Euskal Herriko Selektzioa edo Euskal Selektzioa da euskaldun gehienek onartzen duten izena (Nafarroan, dudarik gabe), baina gaztelaniaz ez legoke gaizki 'seleccion vasca' deitu beharrean 'seleccion vasconavarra' deitzea, erdaldun gehienei identifikagarriago egiten baitzaie, 'vasco' eta 'navarro' parean paratzea. Batasuna adierazten duten inertzia sortu behar ditugu, euskal nazionalismoa ailegatu ezin den tokietara ailegatzeko. Bi aukera ditugu: euskal nazionalismoak Nafarroan jasan duen jazarpenagatik kexa hutsean erori eta espainolistek ikusten gaituzten bezala agertzea (bere erriak dituen minoria bat bezala), edo anbiziosoago jokatu eta bertze formulazio identitario bat praktikan paratzeko eskaparate bezala erabiltzea. Euskal nazionalismoaren sinbologia parte izanen duen identitate bat, baina ez hura bakarrik.

OSASUNEZ

Gripea (1)

Lurdes ENETERREAGA (Doneztebeko Osasun Zentroa)

Gripea, urriaren eta otsailaren artean birus batek sortzen duen infekzio-gaixotasuna da. Hagitz kutsakorra da eta airez erraz zabaltzen da, leku itxietan gehien bat.

Solas egiterakoan edota ezutula edo doministiku egiterakoan ateratzen diren txistuaren ttantaren bidez kutsatzen da. Birusak kutsatutako gauzak ukitu ondotik eskuak sudurrera, ahora edo begietara eramanez gero ere kutsa daiteke.

Kutsatzeko arrisku gehiena, sintomak hasi eta lehenbiziko 3 egunetan izaten da; baina sintomak hasi aurreko egunetan eta ondorengo zazpi egunetan ere arriskua egon daiteke.

Sintoma hauek izaten dira gripean: bat-batean hasitako sukarra, 38°C baino gehiago, ondoeza, buruko edo giharretako mina, nekea, jateko gogo falta, sudurreko kongestioa, ezutula, doministikuak... Ager daitezke baita, ezta-rik mina, muki saila, negar-jario, eta tarteka, goitika eta beherakoa... Osasuntsuak diren pertsonetan konplikaziorik edota ondoriorik gabe sendatzen da normalki, 7 bat egunen buruan, baina adinez nagusi direnengan edo gaixotasun kronikoak dituen jendeengan badu konplikazioak sortzeko arriskua.

GRIPEA SENDATZEKO GOMENDIOAK

Gripea duten pertsona gehienak gai dira nor bere burua zaintzeko etxean, ohiko aholkuei jarraituz, ez baita gripe mota identifikatu beharrik, ezta antibiotikorik hartzea ere:

- Etxean gelditu, atsedena hartu, gela haizeberritu eta hotza saihestu.
- 38° C-tik goragoko sukarra, ezongia, buruko edo giharretako mina... izanez gero, analgesiko-antitermikoak hartu, parasetamola, adibidez.
- Likidoa ausarki edan eta ur-lurrunekeko inhalazioak egin.
- Arropaz arina ibili, sobera estali gabe. Ur epelaren bainuan sartu, gogorik bada, sukarra jeisteko.
- Elikagai osasuntsuak hartu. Goserik ez baduzu, hartu fruta-zukuak, barazki-saldak eta infusioak.
- Ez erre, eta ez arnastu tabako kea duen aierik.
- Erne ibili beste sintomarik agertzen ote den.
- Gogoan izan gaixotasuna ez kutsatzeko neurriak.

Komenigarria da medikuaren arreta eskatzea:

- Konplikazioen bat dagoela susmatuz gero:
 - 38tik gorako sukarra, 4 egunez segidan.
 - Arnasa hartzeko zailtasuna, hatsa handitua edo arnastetua.
 - Bularreko edo saihetseko mina.
 - Osasun egoerak, bat-batean, okerrera egitea.
 - Ohikoak ez diren sintomak agertzea: orbanak azalean, buruko min bizia edo burua nahasita izatea, lepoko zurruntasuna edo begitako mina argiak jotzen duenean.
 - Mugitzeko astun edo gogor egotea, esnatzeko zailtasuna, edo, haurren kasuan, jostatzeko gogorik ez izatea.
- Sintoma hauetakoren bat baldin baduzu, deitu edo joan Osasun Etxera. Osasun etxea itxita badago, deitu 112ra.

Irakurleak mintzo

75. urteurrena pasa da, mila esker denei

Modesto MAIA LARRETXE
(Beti Gazteko Zuzendaritza
Batzordearen izenean)

Joan zaigu 75. urteurrena. Eta balantzea egiteko eta eskerrak emateko tenorea ailegatu da.

Egia da lana egin behar izan dugula, eta gogor, antolatu ditugun jarduerak eta ekitaldiak aitzinera eramateko. Baina egia da ere, izan dugun laguntzarekin hori hagitzez errazagoa egin zaigula. Eta, hala ere, ezin izan ditugu gauzatu aurreikusiak genituen guziak. Bertze batean izan beharko du.

2014ko azaroan hasi ginen urteurrena prestatzen, eta horretarako logoa behar genuen. Lehiaketa egin eta aski logo polita aukeratu genuen ikurtzat. Aipatzekoa logo lehiaketa irabazi zuenak saria Beti-Gazterentzat utzi zuela.

Ilbeltzean, San Anton eguna aprobetxatuz, martxa erregulatua egin genuen; ondoren Lesakatik Zarautzeraino joan ginen 3 etapatan, sekulako giroa tarteko.

Maiatzean, Banden alardea antolatu genuen, Lesakako Musika Bandaren laguntzarekin, eta Berako eta Elizondoko bandek parte hartu zuten. Horretan, herriko hainbat ostatak lagundu ziguten tragoxkak debalde eskainiz bandetako kideei.

Ekainean eta uztail hasieran Lesakako Gazte Asanbladarekin Herri Olinpiadak antolatu genituen. Parte-hartze han-

dia izan zen, eta giroa zer erranik ez.

Ekainaren 6an Beti-Gazteren Eguna ospatu genuen, giro ezin hobean, eta 200 jokalar eta jokalar-ohi baino gehiagoren parte-hartzearekin. Egun ahaztezina izan zen.

Ekainaren amaiera aldera, Agerra Mendi Taldeak parte hartu zuen ospakizunetan hitzaldia eta proiektio bat eskainiz. Lortu genuen dirua, Nepaleko Gobernu kanpoko erakunde bati eman genion. Hil horretan bertan, omenaldia eskaini genien gure artean ez dauden mendizaleei, Agiñako Aita Donostiren monumentuaren ondoan.

Uztailaren 3an, Lesakako Musika Bandak ostatutxo bat jartzeko aukera eskaini zigun haien kontzertuan, eta han lortu genituen diruek ederki lagundu digute urtemugako ospakizunak gauzatzeko.

Uztailaren 10ean, Erraldioen Topaketa antolatu genuen, eta Bera, Elizondo, Etxalar, Igantzi, Doneztebe, Sunbilla eta Lesakako konpartsek parte hartu zuten, musutruk. Guzira 18 erraldoi, inoiz herrian ikusi ez zen ikuskizuna eskaini zutenak. Egun horretan bertan Beti-Gazteko sokatira taldeak erakustaldi polita eskaini zuen Plaza Zaharrean.

Abuztuaren 7an, futboleko torneo trianguluarra antolatu genuen, Baztan, Doneztebe eta Beti-Gazte taldeen artean.

Eta ailegatu zen abuztuaren 9ko Ezpatadantzarien Egun zirrargarria. 7 talde osatu ziren, 103 dantzari, gazteenak 9 urte eta zaharrenak 71, egu-

raldi kaskarrari aurre egin ziotenak, eta haien musika eta desfileekin herri guztia alaitu zutenak. Eskerrak eman parte-hartu zuten guziei, dantzariak, Txistulari taldea, Lesakako Musika Banda, Tantirumairu Euskal Folklore taldea, eta ikuskizuna ikustera hurbildu eta txalotu eta emozionatu ziren guziei. Ahantzi gabe, lan ixila egin zuten brigadillako kideei, erreka bazterrak apaintzen, aldarmioak jartzen eta gainerakoetan aritu zirenak gogotsu egun horretan eta aitzinekoetan. Eskerron berezia aintzinesku edo kapitain izan direnei, izugarritzko lana egin zutelako ekitaldia arrakastatsua izan zedin.

Giro paregabea izan zen egun guzian, dantzak amaitu ondotik frontoian 340 lagun inguru bildu baikin bazkari-az gozatzera, Elutxa txarangaren musika alaiarekin.

Irailean, mendirako bidea hartu genuen, eta Hiru Errege Mahaira joan ginen 25 lagun, Euskal Herriko mendirik altuenera ailegatu ginenak. Mila esker, elkarteko mendizaleak.

Eta urrian, Iruñeko Obarena taldearekin elkar lanean Nafarroako Mendi Elkarteen Eguna antolatu genuen. 340 mendizalek parte hartu zuten prestatuturiko ibildian eta gero 200 inguruk frontoian bazkaldu, eta ondoren Modesto akordeoilaria giro aparta jarri zuen, baita Elutxa txarangak ere.

Azaroan, Giltzarri Abesbatzak kontzertu berezia eskaini zigun, eta, gainera, oparitxo bat eman, gure 75. urteurrena zela eta. Gero, Edurne Pasa-banen hitzaldia ailegatu zen,

izugarri interesgarria eta proiektio ikusgarriekin.

Abenduan, Lesakako Abesbatzaren eta Soinalarien kontzertua izan dugu, hurbildu zen publikoari ikaragarri gustatu zitzaiona. Musika Eskolako haurrek ere parte hartu zuten.

Eta, nola ez, Olentzero, lesakarra izaki, 75. urteurrenaren ospakizunetara elkartu zitzaigun, gazte eta ez hain gazte batzuei esker.

Eta amaitzeko, banderaren jaitziera, nolabaiteko aitzakia 75. urte bete ditugun urte honi behar bezalako amaiera emateko, Elutxa txarangaren musikarekin.

Aitzinetik aipaturiko horiei guztiei eta nola ez, mila esker Lesakako herriari, zuekin eta zuentzat ari baikara lanean, gure herriaren izena ahalik eta leku gorenean jarri nahian. Eta mila esker diruz lagundu diguzuen guziei ere, bereziki Lesakako Udalar, zuei esker ekitaldiak gauzatzeko lortu baitugu.

Urte luzea izan da, nekatu gara, baina merezi izan duela sentsazioarekin gelditu gara. Iruditzen zaigu Lesaka harro dagoela gure elkarte honekin, herritarrek maite dutela elkarteak, eta, hori hala, guk ere pozik segituko dugu lanean.

Ezin ditugu ahantzi hemen urte guzian, eta urteak joan eta urteak etorri, elkartearan alde lanean aritzen zaren bazkide, entrenatzaile, guraso, haur eta heldu, eta baita bertze edozein ere nolabait gurekin lanean aritzen zarenak, zuei esker baikara garen bezalakoak.

Beraz, mila esker, berriro ere, eta AUPA BETI-GAZTE !

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus
Posta: **Koskontako bidea, 07-1 31770 LESAKA**
Tel.: **(0034) 948635458** Faxa: **(0034) 948635457**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Prentsatik bildutakoak



«Bidasoko Trena ailegaten ikustea gertakari handia zen, estazioan izaten zen bizitza, peskaterek eta *trapitxeroek*, normalean izaten ez ziren gauzak ekartzen zituzten».

Miguel IBARROLA

Doneztebarra
D.NOTICIAS • 2016.02.01

«Trenean ekartzen ziguten arraina eta nik orgatxoan biltzen nuen etxerako».

Julita LANASPA

Doneztebeko sukaldaria
D. NOTICIAS 2016.02.01



«25 urte daramazkigu landetxe moduan funtzionatzen. Hasierakoak aunitz ikasi behar izan genuen urteak izan ziren. Gure aldetik, ordura arte bakar-bakarrik abelzaintzan aritzen ginelako eta ikasi beharra genuen, baina teknikariek ere ikasi behar izan zuten, ez baitzegoen gisa honetako negozioen erreferentziarik Nafarroa osoan».

Mari Jose IPARRAGIRRE

Urruska landetxekoa
D.NOTICIAS • 2016.01.24

11 galdera labur

Nor da Garbiñe Olazar?

Astex Iruñean bizi eta ahal bezain azkar herrira bueltatzen den neska lotsagabe eta saltsera! Kar-kar!

Zein afizio dituzu?

Musikazale amorratua naiz, baina horretaz gain, mahai inguruko bertsoez disfrutatzea ere gustuko dut.

Momentu lasaietarako kantu bat?

Askio datozkit burura, horien artean Fito & Fitipaldis taldearen *El negro de tu pelo* eta Mikel Urdangarinen *Kideari*.

Eta parrandarako?

Plaza giroa nahiago badut ere, salta sortzen duen edozein kantu da dantzagarri!

Puro Relajo taldearekin ez du edonork abesti bat grabatzen...

Kriston sorpresa hartu nuen haien deiarekin, sekulako esperientzia izan da elkarrekin abesti bat grabatzea! Ikaragarrizko ilusioa egin zidan eta eskertzekoa da nirekin kontatu nahi izatea.

Zer behar duzu zoriotsu izateko?

Nire ingurukoak ongi egotea garrantzitsuena, beraiek dira nire bizipoza!

Ezin zara etxetik atera...

Nire poltsa erraldoia hartu gabe, nahiz eta gero etxera bueltatzean giltzak bilaka denbora dezente pasa! Kar-kar!

Ikusezina bazina, zer egingo zenuke?

Pare bat ikaratu, lagunei bromak egin eta nola ez, irakasleen bulegotan kuxkuxeatu!

Hitz kuttunena? Eta desatsegina?

Kuttunena beti izanen da ama, xamurtasun eta goxotasunaren sortzaile. Desatsegina, aldiz, nazka.

Iturengo txokorik politena?

Lasaga auzoko ur-jauzia, gitarra hartu ta abesti batzuk jotzeko leku bikaina!

Amets bat?

Gizarte Lana ikasten dudanez, jendarte justu eta hobe baten alde borrokatu nahiko nuke.



Garbiñe OLAZAR BAZTERRIKA → Iturengo gaztea

ARTROSIARI

BURUZKO OSASUN TAILERRA



GURE KONTSULTAN

Arnaud Mante D.C. doktoreak eskainita

OTSAILAREN 16an arratsaldeko 7:30ean

DOAKO ASISTENTZIA - PLAZA MUGATUAK

Kanttonberri 1, 1º C – 31780 – BERA – Tel. 948 631 403

GIZARTEA

GIZARTEA → ABENDUAN BAINO 89 GEHIAGO

1.099 langabetu zeuden ilbeltz hondarrean

Nafarroa osoko igoerarik handiena jasan du Doneztebeko bulegoak

lego guztien artean datirik kaxkarrena, %8,81 igo baita langabezia eskualdean.

ADINAREN ARABERA

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 479 lagun daude langabezian, abenduan baino 25 gehiago. Adin tarte horretako emakumeen artean oraindik handiagoa izan da igoera, abenduan baino 56 gehiago daude langabezian, 532. 25 urtez beheitiko gizasemeen artean abenduan baino 3 lagun gehiago daude langabezian, 51 lagun. Adin tarte horretako emakume gazteen artean abenduan baino 5 langabetu gehiago dau-

LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA | 2016ko urtarrila

Herria	Populazioa 2014	Lanik gabe guztira	Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?	
			EZ	BAI
ARANO	111	6	3	3
ARANTZA	629	14	9	5
ARESO	266	6	2	4
BAZTAN	7.848	303	148	155
BEINTZA-LABAIEN	234	6	4	2
BERA	3.760	155	78	77
BERTIZARANA	602	47	30	17
DONAMARIA	456	21	11	10
DONEZTEBE	1.644	98	59	39
ELGORRIAGA	226	13	8	5
ERATSUN	160	10	7	3
ETXALAR	819	27	11	16
EZKURRA	152	7	2	5
GOIZUETA	747	33	13	20
IGANTZI	625	18	8	10
ITUREN	525	29	18	11
LEITZA	2.906	112	58	54
LESAKA	2.742	115	64	51
OIZ	140	7	3	4
SALDIAS	118	7	3	4
SUNBILLA	650	29	18	11
URDAZUBI	392	11	7	4
URROZ	179	4	3	1
ZUBIETA	319	12	6	6
ZUGARRAMURDI	225	9	4	5
Denetara	26.475	1.099	(%52,5) 577	(%47,5) 522

de, 37 denera.

Zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten, eta urtarrilean, gainera, 72 gehiagoko pilatu ditu, 705etik 777ra pasatuz. Industria arloan ere 22 lan-

gabetu gehiago daude, 154 denera. Eraikuntzan 2 langabetu gehiago daude, 88. Nekazarilean, aldiz, 7 lagun guttiago daude lanik gabe, 26 denera, eta aitzinetik lanik egin ez du-

tenen artean 54 lagun daude langabezian, abenduan bezalaxe.

Koadroan ageri denez, gainera, gehiagoko dira langabezia-prestaziorik kobratzen ez dutenak.

ETXEBIZITZEN SUSTAPENA LESAKAN



Ezaugarriak:

- 75 m², distribuzioa bezeroak aukeran
- Oztopo arkitektonikorik gabekoa
- Etxebizita bakoitzak berezko garajea izanen du

135.000€

SAROB
ERAKUNTZAK

info@sarobe.eus

www.sarobe.eus

639 623 473

mmstudio-k diseinatua
www.mmstudio.info · 651 776 998

GIZARTEA → AZALERATZEN DIREN BEHARREI ERANTZUNAK BILATZEN SAIATUKO DA

Etxebizitzen egoera eta beharra aztertzeke langile bat hartuko du Udalak

Ibilgailuen mugikortasuna hobetzeko ere zenbait neurri hartuko ditu

TTIPI-TTAPA

Herriko etxebizitzen gaineko azterketa egiteko langile bat kontratatuko du Berako udalak. Azterketak alde batetik etxebizitza hutsak landuko ditu: zenbat dauden, zein egoeratan, alokairuan jartzeko aukerak... Eta bertzetik etxebizitza beharraren gaia ere landuko da. Zenbat lagunek behar duten etxebizitza, zer motatakoa, zer neurritakoa, zenbat ordaindu dezaketen, alokairuan edo erosteko... Azterketa hau oinarri hartuz udala azaleratzen diren beharrei erantzunak bilatzen saiatuko da.

IBILGAILUEN MUGIKORTASUNA

Bertzalde ibilgailuen mugikortasuna hobetzeko neurri batzuk har-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Kaldereroak atera dira inauteriak iragartzeko

Hau irakurtzen duzunerako inauteriak bukatuak izanen dira, baina ospakizunak iragartzeko kaldereroak ibili ziren aitzineko asteburuan. San Jose Zahar Etxea bisitatu ondotik, Herriko Etxeko Plazan egin zuten ijito-ekzkontza.

tuko ditu. Joan den urteko udazkenean egin-dako auzo batzarretan proposatutakoak dira neurri hauek.

Honela, Euskaldunatik Suspelttikira igotzea galeraziko da eta jausteko norabidea bakarrik

izanen du karrika horrek.

Eztegarako ikastolatik Kaxerna edo Suspelttikira igotzeko, igerilekuen ondoko bidetik egin beharko da eta jausteko, berriz, ormi-goiezko bidetik Eztega-

ra aldera edo Euskaldunra aldetik Bidasoa karrikara.

Azkenik, Uraldea karrika norabide bakarrekoa izanen da. Altzate aldetik sartu ahal izanen da baina ez Alzate aldera ateri.

FLASH

Agerra mendi taldea Goizuetara

Agerra mendi taldeak urtero antolatzen duen Bera-Goizueta mendi ibilaldia otsailaren 21ean egingen da. Otsailaren 17a baino lehen eman behar da izena elkartearen edo 948 630362 telefonora deituz (gauetz). Agerratik edo Agiñatik oinez edo autobusez egin daiteke bidea.

Zuhaitzaren Eguna

Manttalet eta Berako Ehiza eta Arrantza Elkarteak, udalaren laguntzaz antolatutako Zuhaitzaren Eguna otsailaren 13an egingen da. Larunbat goizeko 9etan plazan geldituko dira eta bi aukera izanen da: Oinez Manttalen eskutik edo kotzez. Ahal bada aitzur bat eramateko ere eskatu dute. Zuhaitzak landatu eta gero Ehiza eta Arrantza Elkartearen gosalduko dute.

Saraguet
aholkularitza
;
abokatu bulegoa

Ippralde karrika 5, behea
31780 BERA · 948 625 162
fsaraguet@abokatua.com

JABEKIDEEN KOMUNITATEEI BURUZKO ERAENTZA

lege aholkuak

1. Jabekide Komunitateen Eraentza, Jabetza Horizontaleko Legean eta Komunitate bakoitzeko Eskriturretan zehazten da.
2. Jabekide bakoitzak, komunitatearen gastuei bere pardaidetza Kuotaren (portzentajearen) arabera egin behar dio aurre, Eskriturretan bertzerik erran ezean.
3. Komunitate guztiek, Akta Liburu eguneratua eduki behar dute derrigorrez. Urtero guttienez bilera bat egitea ere derrigorrezkoa da, non komunitateko kontuak, aurrekontuak eta karguak onartu behar diren.
4. Komunitatearen akordioen inguruan, legeak gehiengo ezberdinak eskatzen ditu akordio motaren arabera. Horien artean, komunitateak gehiengo sinplez erabakitzen du obra bat (fatxada margotu, teilatua konpondu...) beharrezkoa den ala ez, eta garrantzi gehiagoko bertzeko akordio mota batzuk gehiengo kualifikatuak eskatzen dituzte.
5. Komunitatearen eskailerak, fatxada edo teilatua bezalako konpontze lanak, lokal komertzialek ere ordaindu behar dituzte, Eskriturretan bertzerik erran ezean.
6. Etxebizitzen leihoak, terrazak eta barandak elementu amankomunak dira (nahiz eta erabilera pribatua izan) eta komunitate ososari dagokio hauen mantentze kostuei aurre egitea.

ZURE GALDERA EGIN EZAZU!!
fsaraguet@abokatua.com

LESAKA

GIZARTEA → BEHIN BETIKO

Beheko solairuetan etxebizitzak egiteko araudia onartu du Udalak

Aitor AROTZENA

Beheko solairuetan etxebizitzak eta bizitegi-gietarako erabilera ezartzeko ordenantzari behin betiko onespina eman dio Udalak. Ordenantzak dioenez, herriko zenbait eremutan eraikinen beheko solairuak komertzioak irekitzeko erabili dira, baina egungo goeren ondorioz jarduerarik gabe daude, aprobetxatu gabe. Hortaz, uste da zenbat lokalek, modu arau-

tuan eta kontrolatuan, bere egoera aldatu eta etxebizitza moduan erabili daitezkeela. Azken aldian zenbait partikularrek kontsultak egin dituzte, gaiaren inguruko informazioa jasotzeko. Azken urteetan, Lesakako hirigintza eta eraikuntza garapenagien baldintzatu duen aldagaietako bat izan da herria zeharkatzen duten erreken uholde arriskuaren afekzioa eta Kantauriko Ur Konfede-



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bardoak hitzordu bikoitza ilbeltzaren azken igandean

Bertsozaleek hitzordu bikoitza izan zuten ilbeltzaren azken igandean Arrano elkartearen, Bardoak ekimeneko bi saio izan baitziren entzungai. Eguerdian, argazkian ageri den herriko *Unibertsolariak* taldea eta Altsasuko *Bota lasai* taldeak izan ziren aurrez aurre eta etxeko taldeak lortu zuen puntu irabazlea. Bazkalondoa, herriko *Tantirubertso* eta Leitzako *Atekaberts* aritu ziren eta leitzarrek lortu zuten puntua. Giro bikaina izan zen bi saioetan.

razioak beheko solairuetako bizitegi-gietarako erabilera modu orokorrean mugatu du, Onin errekatik 100 metroren barrenean. Hau eta bertze zenbait arau kontuan hartuz, ordenantza honek zehazten ditu beheko solairuetan bizite-

Ba al zenekien

San Fermin jubilatuta elkartearen neguko mus, seiko eta nahaste txapelketak otsailaren 15, 16 eta 17an jokatu direla, 17:00etan. Parte hartu nahi dutenek ostaturadunei eman behar diete izena.

gietarako erabilerak izan ditzaketan eremuak,

Oninen uholde arriskurik ez dutelako.

ZALAINGO LANGILEEK MOBILIZAZIOEKIN SEGITZEN DUTE

Zor zaiena ordaintzea eskatuz elkarretaratzea egin zuten Berako Banco Santander parean

TTIPI-TTAPA

Condesa taldeko Zalain Transformados Lantegi Batzordetik jakinarazi dutenez, langileei zor zaien dirua kobratzea eskatzeko mobilizazioekin segituko dute. Honela, otsailaren 4an, lau orduko lan uzteak egin zituzten eta lantegitik abiatu eta Berako Eztegarra karrikan dagoen Santander Bankura joan dira 150 bat langile protesta moduan eta bere arazoa gizarteratzeko.

Gaur egun 350 langile ditu Zalain Transformados lantegiak eta Condesa taldean sartua dago oraingoz, Euskal Herriko bertze hiru lantegirekin eta nazioartean dituzten bertze borts lantegirekin batera.

Condesa taldeak Eguberrietako eta urtarrileko aparteko bi soldatak ez dizkiela ordainduko jakinarazi die langileei eta hauek mobilizazioetan hasi dira. Zalaingo langileek txanda bakoitzean lau orduko



ÚTITAKO ARGAZKIA

Zalaingo langileak, Banco Santanderren Berako bulegoaren aitzinean.

lan uzteak egin zituzten urtarilaren 18an. Ondotik, paga bakoitzaren %25 bakarrik ordaindu zutelak ikusita, otsailaren 2 eta 4 bitarteko txanda bakoitzean bertze lau ordutako

lan uzteak egin zituzten. Langileen ordezkariak eta langileek batzarretan argi utzi dutenez soldataren osotasuna kobratu arte mobilizazioekin segituko dute.

IRU BIDE
Erretegia · Asador

Buñón, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

- Lantzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria
lantzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

F. LANCHAS

Akutziladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 · BERA

GIZARTEA → URTARRILAREN 22AN BILERA EGIN ZUTEN

Kultura sarearen barrenean herriko hamazazpi talde daude

Elkarren arteko komunikazioa hobetzeko internet erabilteza gomendatu du kultur etxeko langileak

Irune ELIZAGOIEN

Etxalarko kultur bizia hobetu eta indartzeko asmoarekin, urtarrilaren 22an kultur etxean bilera antolatu zuten. Gaur egun herrian 17 talde desberdin daude, hala nola, Zanpingorri mendi taldea, txistulariak, trikitilariak, Etxalarko *gaztik*, Altxata Kultur eta Kirol elkarteak, su-teen kontrako elkarteak, Landagain eskolako guraso elkarteak, Andre Mari dantza taldea, Etxalarko usazaleak, Naturzaleak, Andra Mari elkarteak, Larraburua, Usoa elkarteak, Etxalarko Euskara batzordea, Landagain eskola, Kultur Etxea eta Kultura zinegotziak. Bileran taldeen arteko komunikazio eta kontaktua hobetzeaz hitz egin zuten, bakoitzak antolatzen dituen ekintzen berri bertzei pasatzeaz eta, agian, elkarlanean ekintza berriak sortzeaz. Horretarako posta elektronikoa



ARGAZKIA: IBON ERRAZU

Etxalarko trikiti afaria

Azken urteetako ohiturari segituz, bosgarren urtez jarraian Euskal Herriko trikitilari mordoxka etorri zen Etxalarrera urtarrilaren 23an. 35 lagun inguru elkar-tu ziren, ilunabarrean herrian poteoa egin eta gero Larraburuan afaltzera. Guztien artean hain ezagunak diren Laja eta Izer trikitilariak, eta Mikel Markez kantaria ere etorri ziren.

edota sare sozialak erabiltzea proposatu zen.

Ola sagardotegira irteera

Larraburua jubilatuen elkarteak irteera antolatu du Irungo Ola sagardotegira martxoaren 5erako. Herri sarrerako aparkalekutik 11:00etan atera, 11:30ean Irungo Plaiaundiko Parke ekologikoan hegazti migra-tzaileak ikusteko bisita egin eta 14:00etarako Ola sagardotegira joan dira bazkaltzera. Irteeraren kostua 28 eu-

Ba al zenekien

Estresa nola gobernatu ikastaroa egingen dute Larraburuan otsailaren 16 eta 23an eta martxoaren 1ean, 10:30etik 12:30era.

rokoa izanen da (kafea aparte) eta izena emateko 948635166 edo 664387343 telefonora deitu behar da otsailaren 23a baino lehen.

Arkupeak elkarteko kideen besta

Arkupeak elkarteko bazkideek otsailaren 21ean egingen dute urtero egiten duten besta

bere bazkideentzat. Goizeko 12:00etan meteko izanen da hildako bazkideen oroimenean.

Ondotik bazkaria izanen dute herriko ostatutan (24 eurotan). Izena eman nahi duenak zuzenean Arantxarengana jo edo 666745485 telefonora deitu behar da otsailaren 16a baino lehen.

FLASH

Informatika ikastaroa

Larraburua elkarteak informatika ikastaroa antolatu du apirilera-ko. Interesa duenak 948635166 edo 664387343 telefonora deitu behar du otsailaren 28a baino lehen.

Herriko bestak antolatzeko bilera

Andre Mari bestetako prestakuntzak hasiak dira gaurgero. Urtarrilaren 29an bestak antolatzeko lehenengo bilera egin zen Kultur etxean. Gauzak zehazten joan ahala bilera gehiago egingen dira datozen hilabeteetan.

Landagain eskolako aurrematrikula

Otsailaren 15 eta 19 bitartean izanen da Landagain eskolako haur eta lehen hezkuntzan aurre-matrikulak egiteko epea. (Landagain eskola: 948635215)

Bortzirietako eskuz banakako txapelketan

Urtarrilaren 20an hasi zen Bortzirietako eskuz banakako XV. pilota txapelketa. Guztira Etxalarko zortzi pilotarik parte hartuko dute txapelketa honetan: Lander Lasaga, Asier Martin, Joseba Telletxea, Aiert Irigoien, Unai Arburua, Koldo Bizente, Markel Etxarte eta Xabier Telletxea. Zorte on denei!

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTUAK

DESIN BERA

DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK

Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi xagutzoz garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

USOA
Nekazari kooperatiba

T. 948 635 214
ETXALAR

- Bertan egindako pentsuak, berze markak eta ekologikoak
- Ongarriak · Burdin tresnak
- Insektizidak · Edariak · Haziak

KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA

ETXEZ ETXEKO BANAKETA

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
E.N.E.K.
BIO-ERAKUTZA ETXELAR
BIO-ERAKUTZA ETXELAR

Inskripzio Zenbakia 1435

Anterola
Tekniko instalatzailea

ITURGINTZA · GASA KALEFAKZIOA

Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa

629 449 602

ARANTZA

GIZARTEA → OTSAILAREN 14AN ELKARTEAN

Euskal Herriko VIII. mus txapelketako kanporaketa igandean

16:30ean hasiko dira partidak

Nerea ALTZURI

Otsailaren 14an, igande honetan, musikariak hitzordua dute Ekaitza Elkartearen. Euskal Herrian egiten den mus txapelketaren baitan, kanporaketa izanen da elkartearen 16:30etik aitzinera. Izen ematea 20 euro da eta sari gisa, afariak eta *crianza* ardoa izanen dira.

Ekaitza elkartearen batzarra

Ilbeltzaren 30ean, batzar orokorra izan zen Ekaitza elkartearen. Batzarrean aukeratzeko baldintza berriak izanen dira:

1.- Azken hiru Zuzendaritza Batzarrean egondako kideek berri- an ez egoteko eskubidea izanen dute.

2.- Zuzendaritzarako bere burua aurkeztu nahi duenak, aitzineko batzarrean jakinarazi behar dio.

Bertzetik, ez da onartu urtero zuzendaritzaren erdia berritzeko proposatu den aukera.

Elkarteko batzarreko aurkeztu nahi duenak, bai bakarka bai taldeka, hamar egun izanen ditu oraingo edozein batzardekideri jakinarazteko edo email bidez Ekaitza elkarte-ari horren berri emateko.

Ondotik, bozketa egiteko orrian agertuko dira eta botoen bidez baieztatuko da aukeraketa.



ARGAZKIA: MIKEL LARRETxea

Gregorio Mitxelena omendu dute I. Trikitixa Jaialdian

Mozorro xuri gazte eta gaztetxoak, puxka puxka eskeak, dantzaldiak, bertsolariak, herri kirolak... eta aurtan lehen aldiz, trikitixa jaialdia arrakastatsua. Akabaila hunkigarria bezain ederra izan zuen ekimenak. Gregorio Mitxelena musikari eta maixu handiak merezitako omenaldia jaso zuen udalaren eskutik herriaren izenean. Kultur arloan, hainbat jardueren bulkatzaile, berritzaile eta eredu. Akordeoia, organoa, atabala, txistua... Musikari jaioa herrian eta kanpoan, artista handia... Bi bertso zoragarri, udalaren oroigarriak eta bere bi semeekin, Beñat eta Andoniren jotako piezak borobildu zuten inauteritako larunbat arratsaldea. Milesker Gregorio!

Eskolako berriak

Joan den ortzeguneko, eskolako lagunak Etxalarera joatekoak ziren kale antzerkiak gozatzera. Bi urtetik behin egiten dituzte antzerki topaketa hauek Etxalar-ko lagunekin harremanak sendotuz eta arratsalde ederra pasatuz.

Bertzetik, otsailaren 17an zuhaitz landaketa egiten dute eta ehunen bat pago landare landaketa egiten dituzte. Ekintza hau eskolak eta udal-entzuek elkarlanean egiten dute.

Aurrematrikulazio garaia izanen da hurrengo astean eta sei eta zortzi haur bitarte espero dituzte eskolan, kopuru polita.

Azkenik, hilabete honetan, eskolako haurrak eguraldiko gizon-ema-kume bilakatu eta baratzetan duten postu meteorologikoan datuak biltzen ariko dira. Tenperatura, prezipitazioa, haizearen norabidea... Urtaro bakoitzean hilabete bat aztertzen dute eta oraingoan, neguaren txanda da.

Udal langileak

Idoia Urtxegi eta Luis Anduezen lekukoa hartuz, hilabete honetan bi herritar hasi dira herriko eraikinetako garbiketara lanetan: Belen Mutuberria eta Maria Dolores Iraola. Sei hilabeteko kontratua dute.

Bertzetik, ilbeltzaren 30ean, losu Larretxea eta Unai Amoros gazteak herriko lanetan hasi ziren. Hauek ere sei hilabeteko kontratuekin, Nafarroako Gobernu-ko Gazte bermea programa baliatuz.

xirgil
jaione gaya
ileapaindegi mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

ANTZUZELAI
S.L.
ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxa. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com
Aintzinaldeak, angeluak, orma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

ERROTAR
harategia

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
T.F. 948 625 474

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

BERTAKO
PRODUKTUAK
Eztegara, 3 · BERA
T.F. 948 630 088
info@errotazar.net
www.errotazar.net

Aurre izen-ematea
otsailaren
15etik
19ra

Burhotzaz... hezi!

Asusar
Kostalxo

info@jesusenbihotza.com
948 63 00 09



IGANTZI

GIZARTEA → ILBELTZAREN 29AN

Ehun urte bete ditu Inaxi Etxeberriak

Udal ordezkarien eta inauterietako mozorroen bisita jaso zuen

TTIPI-TTAPA

Joan den ilbeltzaren 29an Igantziko Inaxi Etxeberriak 100 urte bete zituen. Igantziko Udaletik zorionik beroena eskaini nahi izan diote mende oso bat begien aitzinean pasatzen ikusi duen emakume alai eta sasotsuari. Bere urtebetetze egunean Berrizaungo etxera joateko eta harekin tarte bat pasatzeko aukera izan zuten udal ordezkariak, eta adin handia izanik ere, gonbesioan aritzeko umore paregabea erakutsi zuen. Etxeko ateak egun guzian deontzat irekiak egon ziren, eta udalaz gainera auzotarrak, hainbat herritar eta lagun, baita inauterietako mozorro-

ak ere izan zituen bistan Inaxik, eta guztiak kontent eta esker onez hartu zituen.

Zer ez ote du bizitu eta ikusi Inaxik 1916az geroztik? Pentsa zenbat aldatu den herria, bizimodua, tartean gerrak eta garai latzak... Zenbat aldaketa, eta zenbat lan. Inaxik berak, etxeko lanez aparte, serora lanak egin ditu (etxeko ganbaran izan dute auzoko kapilla hainbat urtez), beheko solairuan auzoko eskola ere izan zuten, jostun trebea ere izan da...

Ez ditu edozeinek betetzen ehun urte, baina Inaxiren senarrak ere, Angel Manterolak, ia 103 urte bete zituen, eta sasoi ederrean harek ere! Ez du edozein bikotek elkarrekin hainbertze denbora bizitzeko aukerarik!

Udalaren izenean Inaxi eta bere familia eskertu nahi dute, eginda harreragatik. "Zinez



UTZITAKO ARGAZKIA

Inaxi Etxeberria, familiak eta udal ordezkariak inguratua.

pozten gara herritar bat adin horretara, horrelako sasoiaren eta hain ongi zaindua ikusita. Aunitz urtez!!" dio Udalaren oharrak.

Ba al zenekien

ETBk herrian grabatu duela programa berri bat, auzolanaren ingurukoa. Grabaketak otsailaren 6an egin dira, abenduan erre zen Frain mendian landaketak egin baitira auzolanean.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Gazteek bete dituzte inauterietako harat-honatak

Giro ederrean ospatu zituzten inauterietako gazteek, ilbeltzaren azken ortziral eta larunbatean etxez etxe egindako eskearekin. Guraso elkarteak ere lehen aldiz afaria egin zuen inauterietako larunbatean. Eskolako haurrek Ortzegun Gizen ospatu zuten eta biharamunean antzerki emanaldiak eskaini.

IGANTZIKO TAXIA
Mediku bisitetara | Eskoletara | Lanera
Egun pasa | Bazkari-afariak lasai egiteko
Behar duzenetarako...
Eramanen zaituztet!
T. 717 716 209 (Ana)

Bidasoa
GASOLINDEGIA
A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA
24
ORDUZ
Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA • T. 609 446 693

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

Zalain

OSPAKIZUNAK → URTARRILEKO AZKEN ASTEBURUA

Kolorez eta giroz beteta joan dira inauteriak

Karrozen desfileak jendetza bildu zuen

Maider PETRIRENA

Ortziralean gazteek eman zioten hasiera inauteriei, gosari eder batekin Ariztigain Kanpinean. Gero, bi taldeetan banatu eta baserri baserri ibili ziren, Modesto eta Joxe Angel akordeoilariak lagun ziztuztela. Arratsaldean haurren txanda izan zen, irakasleen eta mexikar musikarekin ibili baitziren, txokolate dastatu eta Agerralderekin dantzatzuz. Gauean berriz, emakumeen txanda izan zen, ehun bat emakume Ulibeltzak elkartearen elkartu baitziren eta aurtengo sorpresa Lesakako Elutsa txaranga izan zen. Gero, Tirri&Terry DJak jarri zuen musika.

Larunbatean berriz, gazteak herrian eskean ibili ziren Mitxelena akordeoilariarekin eta Fondan bazkaldu zuten. Arratsaldean berriz, haurren diskofestaren txanda izan zen Ulibeltzak elkartearen.

Igandeko karrozen desfilea ederra izan zen. Betiko hiru karrozek ireki zuten desfilea. Bertan 1.200 arraultzeko tortillak, salda (500 litro), gaztainak, ardoa,

taloak eta gazta banatu zituzten ikusleen artean. Segidan, bertze zenbait karroza: Minions taldea, Arkupeak elkarte-bazkideek 1981ean Benidormera egindako bidaia, zirkua, Egipto, Kadizko txirigotak, sorginen akelarrea, garai bateko *Verano azul* telesailako pertsonaiak, masai tribua, mojen konbentua, Oesteko saloon ikusgarria, Jonathan eta Jennifer *txonien* ezkontza, militarren tiro zelai irrigarria eta ostruka lasterketa ikusteko aukera ere izan zen.


Desfilea akitu eta urtero bezala plaza ondoren zerri eta bildotsaren zozketak egin ziren. Zerria Konstantzeneko Tere Petrirenari suertatu zitzaion eta bildotsa, berriz, Eugiko Urtasuni. Zorionak biei. Guztira 9.000 boleto egin eta denak saldu ziren.

JAVI PETRIRENA

⚡💧❄️🌱🔌

ELEKTRIZITATEA
ITURGINTZA
KLIMATIZAZIOA
LED INSTALAZIOAK
BEROKUNTZA
BIOMASA: EGURRA / PELLET
GREMIO KOORDINAZIOA
INSTALAZIOEN FINANTZIAZIOA

T 679 35 49 47
Sunbilla (Na) | jabi_pj@hotmail.com



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA, MAIDER PETRIRENA ETA NIEVES BIURRARENA
Hiru egunez giro paregabea izan da herriko karrika eta baserrietan.



ARGAZKIA: JONTXU ANTZIZAR

Euskal Herriko mus txapelketaren kanporaketa

Euskal Herriko Mus txapelketako sunbillako kanporaketa urtarrilaren 24an jokatu zen Ulibeltzak elkartearen. Guztira 8 bikotek parte hartu zuten eta honela izan zen sailkapena: 1. Itxegi-Joxe Martin; 2. Jose Luis-Jose Miguel; 3. Josu-Jon eta 4. Angel-Iker. Bikote txapelkunak du otsailaren 20an Iruñeko Arrano Elkartearen jokatu den finalean parte hartzeko eskubidea.

DONEZTEBE

GIZARTEA → UDALAK AHO BATEZ EMAN DIO BABESA PROIEKTUARI

Lanbide Heziketa Zentro Integratu berriari atxikimendua

Proiektua bideratzen aktiboki lan egiteko prest azaldu da

Marga ERDOZAIN

Lanbide Heziketa Zentro Integratu berriaren proiektuari atxikimendua eman dio aho batez udalak, pasa den hilabetean egindako batzarrean.

Atxikimendu honekin eskualdean baliabide hau berrantolatzeke premiaren beharreakin bat egin nahi izan da. Aipatu behar da Nafarroako Gobernu berriak ere hala bilduta daukela bere Gobernu akordioan. Lanbide Heziketa Zentro Integratu honekin gure eskualdeko aukera berri hau zabalteko aukera ezin hobe a idekiko litzateke.

Atxikimenduari dagokionez honako puntu hauek bildu dira: Eskualderako erreferentia izanen dena, kokapen zentralizatu batean, euskalduna eta hezkuntza eskaintza berrieta eta eskualdeko beharrei egokitzeko aukerak emango dituena.

Prestakuntza erreglatua eta ez erreglatuaren aukera emanen duena, gazte, heldu, langile eta langabetuentzako prestakuntza bat emango duena, goiz eta arratsalde.

Atxikimenduarekin batera Udalak Zentro Integratu berria bideratzeko prozesu honetan



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Ezkurra eta Uterga ere saritu dituzte Erremontearen Galan

Urrezko Erremontea Urrizarentzat izan zen, baina herriko erremontelariak ere jaso zituzten bere sariak Erremontearen Galan. Koteto Ezkurak, partida nagusiak jokatzen dituzten erremontelariak biltzen dituen A multzoko 2015eko erremontelariak erregularrena izendatu zuten, iaz jokatutako 56 partidetan 35,25 puntu lortuta (gehienez, 40 lor daitezke). Xanti Utergak, berriz, frontoi laburreko erremontelari onenaren saria jaso zuen. Lasarte-Oriako Gotzon Uegun eskultoreak egindako garaikurrak jaso zituzten saritzat.

aktiboki parte hartzeko prest dagoela adierazi du.

Eskualdeko udal guztien atxikimendu lor-

tu ondoren Nafarroako Gobernuarekin negoziaketarekin jarraituko da ondorengo urratsak finkatzeko.

OTSAILEKO AGENDA

Ipuin Txokoa eta zine emanaldiak

TTIPI-TTAPA

Ipuin txokoa (0-3 urtekoentzat) asteartero bezala, 10:30ean burutuko da (otsailaren 16an eta 23an). Ipuin ordua berriz, otsailaren 17an (HH eta LHko 1. eta 2. mailakoendako). Otsailaren 13an Erreka guraso elkarteak antolatutako zinema emanaldia berezia izanen da, *Loreak* filma pantailaratuko baita. Gainerako emanaldiak, ohikoak direnak, hilaren 14 eta 28an izanen dira. Emanaldi horiek Erreka Guraso Elkarteak eta DBHko 4. mailako ikasleek antolatutakoak dira. Hilaren 20an, arratsaldeko 7etan zinema aretoan *Herri Txiki Infernu Handi* saioaren emanaldi herrikoia antolatu du Udalak. Egun horretan ere, Kafe ostatuak antolatua, bertso afaria izanen da, Julio Soto eta Amets Arzallus bertsolariak alaituta.

FLASH

Seme-alaben jokabide desafiatzailea

Seme-alaben jokabide desafiatzailearen aurrean aritzeko moduak hitzaldia eskainiko du Carmen Nieto psikologoak (Herrikoia) otsailaren 22an, astelehena 14:50ean eskolako liburutegian izanen da 14:50ean, Erreka eta Mendaur guraso elkarteek aurtengo gurasoendako formakuntza barrenean aurreikusitako hirugarren hitzorduan.

AFINAREN HITZALDIA

Nafarroako Fibromialgiaren elkarteak gaitz honen inguruko hitzaldi-tailerra antolatu du otsailaren 11n (ortzeguna) Osasun Zentroan goizeko 9:30etik 14:00etara izanen da.

Ene kantak

Ene Kantak Baietz dantzan hasi emanaldiaz gozatzeko aukera izanen da martxoaren 13an kiroledegian.

ZURE GANBARAN

ANTIGUEDADEAK



ALTZARIEN ZAHAR BERRITZE ETA SALMENTA IKASTAROAK ORDUTEGI ZABALEKIN ENKARGUZ ZAHAR BERRITZEA

DONEZTEBE • T.653 274 451
zureganbaran@gmail.es

Baztan-Bidasoko Renault eta Dacia zerbitzu ofizial bakarra



RENAULT
Passion for life



Gure ibilbidea 1975ean abiatu zen. Urte hartan Doneztebeko instalazioak eraiki genituen eta orain ere bertan gaude.

Talleres Santestebanetaz hitzegiterakoan, Renault ibilgailuen komertzializazioari eskaintako 40 urteko historiaz ari gara. **Gaur egun, Baztan-Bidasoko Renault eta Dacia zerbitzu ofiziala eskaintzen bakarrak gara.** Dagoeneko lau hamarkada eman ditugu eskualdeko eskaerei erantzunez eta bertakoen beharrak aseztuz, beti profesionaltasun handienarekin eta etengabeko prestakuntzan ari den lan-taldeaz inguratuta.

Teknologiarik modernoekin prestatutako instalazioetan gure bezeroei zerbitzu hauek eskaintzen dizkiegu: ibilgailuen konponketa (mekanika, elektrizitatea, karrozeria eta pintura), Renault eta Dacia ibilgailu berri eta erdi-berrien salmenta. Auto eta furgonetak errentan emateko zerbitzuaz gain, UN-SAINen eskutik aseguru-arterkaritza ere eskaintzen dugu.

2006az geroztik ISO 14001 eta ISO 9001 ziurtagiriak ditugu, kalitatearekin eta ingurunearekin hartuak ditugun konpromisoak bermatuz.

Merkatuaren egoera baikorra da eta, aldi berean, lau ibilgailu modelo berri merkaturako ditugu: ESPACE, KADJAR, TALISMAN eta MEGANE. Beraz, etorkizunari ilusioz begiratzen diogu.

Leitzako errepidea, 80an espero zaitugu, Donezteben.



TALLERES SANTESTEBAN, Ongi etorri!
Baztan - Bidasoko Renault Zerbitzu ofizial
bakarra gara orain. Zure kotxeak behar duen
guztirako, etorri gurera.



ARKUPEAK

GIZARTEA → ORONÓZ-MUGAIRIN ILBELTZAREN 31N

Manuel Arregi omendu dute ehun urte betetakoan

Arkupeak elkarteko sortzaile, batzordekide eta delegatua izan da

Fernando ETXEBERRIA
Manuel Arregi Goñik ehun urte bete ditu ilbeltzaren 28an. Ilbeltza-

ren 31n omendu zuten herritarrek Oronoz-Mugairiko elizan, eta Arkupeak elkarteak ere parte hartu zuen ekitaldian. Meza ondotik Aurrekua dantzatu zioten hiru dantzarik. Arkupeak elkartearen izenean, Rosa Bertizek eta Fernando Etxeberriak orri-garriak eman zizkieten (koadro bat bere argazkiarekin eta goxoki-



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Manuel Arregi, Arkupeak elkarteko ordezkariak.

potto bat), gisa horretara elkartearen alde egindako lana eskertuz. Izan ere, Arkupeak elkarteko sortzaileetako bat izan zen Manuel Arregi, baitaunitz urtez zuzendaritza batzordeko kide eta delegatua ere.

Euskal Kantuen Eguna Dantxarinean

Arkupeak elkartearen azken boletinean ageri denez, Euskal Kantuen Eguna ospatuko dute apirilaren 21ean Dantxarinean.

Egun horretan, Arkupeak elkarteko bazkideek ez ezik, nahi duten guztiak parte hartzea nahi dute, gure betiko kantuak abestuz goxatzeko. Horretarako, herrietako delegatuei eman behar zaie izena martxoaren 10 eta 11n.

KIROLA → EURIARI AURRE EGINEZ

Ibardinera mendi ateraldia egin dute

Otsailaren 16an Bertizko jaurerri aldean ibiliko dira

Fernando ETXEBERRIA
Hasiara batean Beratik Larunera igotzeko

asmoa zuten, baina eguraldi kaxkarra medio, Ibardin inguruan ibilaldia egin zuten, Ramon Tapia xerpa antolatu eta gidatuta. 31 bazkidek parte hartu zuten, Berako institutuko aparkalekutik euripean abiatuta. Ia bost ordu-



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko mendizaleak, Berako institutuko aparkalekutik abiatzen.

ko ibilaldiaren ondotik, ederki bazkaldu zuten Zalain jatetxean. Hurrengo ateraldia otsailaren 16an izanen dute,

Bertizko Jaurerriko inguruetan barna. Martxoan Beran geldituak dira. Autobusean Biriaturajon eta handik oinez bi-

dea eginen dute Berrara. Apirilean, Kaskantak zuzendutako Leitzako taldeak herri inguruan zeharkaldia antolatu du.

sarobe
gozotegia okingegia

pº de eztegarra 25 bajo
31780 bera (navarra) 1.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARITX

Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

ORBELA
SENDERSMOA ALBERGUESNAVARRA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 1EAN

Mende bat bete da Bidasoko Trena abiatu zenetik

Irunetik Donezteberako bidea egin zuen eta Elizondoraino ailegatu zen hilabete batzuk beranduago

TTIPI-TTAPA

1916ko otsailaren 1ean abiatu zen lehen aldiz Bidasoko Trena. Lehen ibilbide hartan, Irungo Kostorbe geltokitik abiatu zen goizeko 8:18ean eta Donezteberaino heldu zen. Zenbait hilabete geroago,

maiatzaren 28an, Elizondoraino zeraman 51,5 kilometroko linea osoa zabaldu zuten.

Aitzinetik, Irun eta Enderlatsa lotzen zituen meatzal trena ibiltzen zen eta XIX. mende bukaera aldera, Ramon Aginaga ingeniariak idatzitako egitasmoa gauzatu ondoren, Baztan-Bidasoko herriak zeharkatuz, giza eta ekonomialorretan eragin garrantzitsua izan zuen, 1916an bidaiaritrenean bihurtu zenak. Berrogei urtez ibili zen Bidasoa bazterrean beheiti eta goiti, 1956ko abenduaren 31n betirako gelditu zen arte.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Elizondoko estazioan trenaren bagoietako bat, 1916. urtean.

Denbora horretan jendearen garraioa lineako autobusek eta merkantziak kamioi handiek beraganatu zuten eta Bidasoko Trenaren erabateko desagertpenaren arrazoi nagusiak izan ziren.

LEHEN BIDAIA

Duela mende bateko otsaileko lehen egun hartan, agintariekin batera, jende aunitz zegoen trena Doneztebeko geltokira noiz ailegatu zain. Konboia musika

bandaren doinuekin eta suzirik hartu zuten, txaloka eta bibaka. Miguel Jauntsaras herriko erretoreak bedeinkatu zituen lokomotora eta bagoiak. Ekitaldia akrituta, Leon Mourgues Elkargoko Zuzendariari eta bertze 60 bat gonbidatari bazkari eder bat eskaini zitzaizen Herriko Etxean. Aldi berean, herriarren artean ogia eta ardoa banatu zen donan. 1916ko maiatzaren 28an ireki zen Elizondorainoko linea osoa, 51

kilometro eta erdikoa.

Hasieran, lurrunaren bidez mugitzen zen trena eta 3 ordu inguru behar zituen Irunetik Elizondorako bidea egiteko. Automotrizak jarri zituztenean bi ordu eta 10 minutura jautsi zen denbora. Lau bidaia egin zituen Bidasoko trenak egunero eta bitxikeri moduan, Irunetik Elizondora joatea alderantzizko bidea baino garestiagoa zen, maldan goiti gasolina gehiago erretzen baitzen.



TAXI XARUTA

619974252 / 948637403

PLAZA ZAHARRA, 2 3ª LESAKA taxixaruta@gmail.com

- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- BIDAI MOTZ ETA LUZEAK
- ENPRESENTZAT ZERBITZUAK, MEZULARITZA ETAB.
- ELBARRIENTZAKO PRESTATUTAKO LUXUZKO AUTOA
- TALDEENTZAKO TAXI ANTOLAKETA
- 7 LEKUKO AUTOA

ITUREN

OSPAKIZUNAK → BISITARI AUNITZ IZAN ZIREN

Umore eta giro onean joan dira inauteriak

Arkaitz MINDEGIA

Urtarrileko azken egunetan eta otsaileko hasieran inauterietan murgilduta ibili gara. Ortzegunarekin lehenbiziko joare soinuak entzun ziren puxka biltzean. Bi-haramunean eskolara iritsi zen besta, mozorroak eta joaldun tiki batzuk ibili baitziren. Larunbatean, Iturengo Herriko Etxeko sabaia eta Aurtizko elkartean aforiak izan zituzten. Igan-dean puxkak biltzen ibili ziren.

Astelehenean, ederki gosaldu ondotik pres-takuntzetan hasi ziren egun handirako: batzuk joareak jartzen, besteak karrozak, mozorroak... jende ugari ibili zen, turista aunitz! Iturengo joaldunak, Aurtitz eta Zubietako Joaldun eta mozorroen bisitaren esperoan gelditzen dira. Hiru taldeak elkartuta joaldun ilara ederra bildu zen, lehenbiziko Joaldun ziren Jabier eta Laxarotik azkeneko umeetara. Iturendarrek herriko etxeko ganbaran eskaini zieten salda eta ardoa bai joaldun baita musikariei ere. Bitartean, mozorro eta karrozak izan ziren protagonista plazan: *ittundar gaztainak* egiten, txatarrakoak ere beraien kotxeekin, Aurtizko konbentua, 3500 kilo Aurtizko idi proba, Alargunak... mozorro pila bat agertu zen bestara. Akitzeko, Aurtiz eta Zubietako joaldunei berai-

en bidea hartzera lagundu zieten Iturengo joaldunek, asteartera arte agurtuz. Baina Joaldun eta Mozorroen besta eguerdi-atsalde partean bukatu baldin bazen ere, juerga eta giro onak segitu zuen otordu eta musika soinuekin ordu tikiak arte.

Asteartea Ituren eta Aurtitzetik Zubietara joateko eguna izaten da, bisita bueltatuz.

Asteazkena ere egun polita izaten da, arratsaldean hurrek joare soinuekin egiten baitute puxka biltzea.

Inauterietako azken txanpa otsaileko lehen asteburuan izan zen. Iturendarrek inauteriei bukaera eman zieten kontuen egunarekin. Goizean hainbat ikuskizun izan ziren: Ibintza taldeko dantzarien saioa, aizkora apustua Maika Ariztegi-Gorka Fagoaga, Itxaso Onsalo-Aritz Fagoagaren aurka eta, nola ez, Egaña eta Zubeldia bertsolarien bertsoak. Hauspolariek taldearen musikarekin dantzatzeko aukera ere izan zen.

Aurtiztarrak ere larunbatean bildu ziren elkartean, Zaharren aforian. Ordu tikiak arte Joxe Angel akordeolariaren musika lagun zutela dantza eta giro onarekin ibili ziren, baina inauterien bukaera igande eguerdi partean izan zuten, kontuak ordaindu ondotik, bazkariaren inguruan elkartuta.



ZUBIETA



UTZITAKO ARGAZIAK

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Mallorcako bikote batek ere hurbiletik ezagutu ditu inauteriak

76 joaldun elkartu ziren herriko plazan Inauteri Asteartean

tako azken eguna. Bazkaldu ondotik kontuak egin zituzten eta ondotik joarea jarri eta aurtiztarrei eta ituren-darrei azken bisita egin zieten ilunabarrean.

Fermin ETXEKOLONEA

Inauteri Asteartean Zubietara bildu ziren Ituren, Aurtitz eta Zubietako joaldunak, 76 denera, bezperan Ituren-era egindako bixita itzuliz eta joaldunen harat-honat jendetsuenei behinik behin akabaila emanez. Zubietako 28 joaldun, Iturengo 20 eta Aurtitzeko 10 atera ziren, etorkizuna badela nabarmen utzi zuten 18 haur eta gaztetxorekin batera.

Beti bezala, errota ingurura bila atera ziren zubietarrak eta hiru herrietako joaldunek bat egin eta Zubietako plaza ingurura sartu ziren. Bezperan Iturenen bezala, nahikoa lan izan zituzten mozorroak uxatzen, baina hauek errespetuz bete zuten beraien lana. Behin joaldunek plazako buelta egin zutenean, mozorroek gisa guzietako karrozak aurkeztu zituzten, batzuk Ituren-era joan zirenak, baina bertze batzuk berriak ere.

Zubietan, asteazkena izaten da inauterie-

MALLORCAKO BIKOTEA

Baina inauteriak luzeak izaten dira eta hori antolatzen 45 lagun bildu dira aurten gazteen elkartean. Denak ados agertu dira, inauterien balorazio oso ona egiterakoan. Bitxikeri modura, inauteriak ezagutzeko asmoz etortitako Mallorcako bikote bat ere izan zen. Berarentzat esperientzia ikaragarria izan dela onartu dute eta agur moduan, joaldunek zapi koardroduna oparitu zieten eta joareak jantzita ere bere saiotxoak egin zuten.

Aipagarria da otordu guziak zuzen izan zitezten Patxiku Mitxelenak, Mari Joxe Loiartek, Raket Telletxea eta Maider Irazokik egindako sukalde lanak. Izan ere, batzuk besta egin ahal izateko, besteek lana egin behar izaten dute, eta fin gainera!

Azkeneko urteetan bezala, lana gogotik egin duena Modesto akordeoilaria izan da. Bere soinuarekin giro ederra jarri du.

SALDIAS

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 6AN

Inaute seinalea afari batekin

Otsailaren 6an egina izanen dute bertso afaria

Markel LIZASOAIN

Berri hau Ttipi-Ttapa para igortzeko orduan, asmo hutsean daude inauteak, eta zuek irakurtzerako afari seinalea egina izanen dute zuzenbidean. Hondarreko urteetan baserrietako itzuliaren ohitura

geldirik badago ere, herri-herriko egin asmo dute haurrekin. Bertso-lariak ere ekarri nahi izandu dituzte, jatordua umore onean pasatzeko; seguru asko ere, bi giputz ibiliak izanen dira: Ander Lizarralde oiartzuarra eta Unai Muñoz berrobitarra. Ia arri-erera ere inauteen usadio zaharri nola edo hala eusteko kapaz garen, denari gustatzen baitzaigu inoizik behin elkarrengana biltzea.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Saldiaso gazteak inauteetan, 2005ean.

Saria ekarri du Mainerrek telebistatik

Telebistak ez duela deusetarako balio, baina Mainerrek ederki baliatu du Bartzelonatik xox batzuk ekartzeko. 'Ahora caigo' lehiake-

tan izandu da, eta bost mila euro pasa irabazi ditu. Zorionak eta ongi aprobeztatu!

Hargiñeneko Mari ere albisteetan

Hain berri onak ez ditu eman telebistak lru-

ñetik. Hargiñeko Mari-
ren etxeak su hartu zuten joan den hilean, eta anaiaren etxean ari dira gauak pasatzen. Berritzeko obrak luze joko omen du, eta ahal den arinena joan dakiola etxera itzuli bitarteko denbora.

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → URTARRILEKO AZKEN ASTEBURUAN

Giro ederrean joan dira inauteriak aurten ere

Ilbeltzeko azken ostiralean afaria izan zuten gazteak eta larunbatean puxka biltzea

Arantxa ITURRALDE

Akitu dira inauteak Beintza Labaienen. Aurtengoak, urtarrilaren azkeneko asteburuan ospatu ziren, ostiralean eta larunbatean eta giro ederra izan zen bi egunetan.

Ostiralean herriko



ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

Ttikienek ere ederki pasatu zuten inauterietan.

gazteak Labaingo ostatuan bildu ziren afari batez inauteei ongi etorria egiteko.

Larunbatean, berriz goizetik puskak biltzen aritu ziren eta umore

onean herriari buelta eman zioten akordeoi-lariaren laguntzaz. Bazkaldu ondotik, beste auzora gerturatu ziren.

Haur eta gaztetxoak

bestalde, izan zuten ere aukera Beintzako ostatuan elkartu eta hauen gurasoekin bazkari goxo batekin haien inauteriak ospatzeko, argazkian ageri denez.



UDABERRIA DATOR, PRESTA ZAITEZ!

Aukera paregabea Landiflor lorendan



Azalea



Tulipán



Hortensia



Narciso



Rosa

Eskaintza zabala
denboraldiko loreetan,
landareetan...

Eta baita fruta arboletan ere.

Lore ontzi, lur ongarrri
eta lorategi osagarriak
zuen esku.

Landiflorren ere Venta Peio
fideltasun txartela
erabili daiteke.



Landiflor

Landiflor zure lorendenda egunero
irekia: 9.30 - 12.30 / 13.30 - 19.00

Barrio Dantxarinea 31712 URDAZUBI
landiflor@venta-peio.com


DANTXARINEA IBARDIN VALCARLOS BEHOBIA

www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es) (ext: 612)

NEGUKO LOALDITIK, UDABERRIKO LORALDIRA

Lorategi eta mendietan sasoiko lanak egiten hasteko tenorea da

Udaberria ate joka dugunez, garai egokia da lorategi eta mendietan lan batzuk egiten hasteko: belarra zaindu, zuhaixka-hesiak eta arbolak kimatu, ongarririk bota, txertoak egin... Izotzik egiten ez duenean, hosto iraunkorreko eta erorkorreko landareak ere landa daitezke. Dena den, komeni da lurra hezeegia ez egoitea. Udaberria goiztiarra bada, udako bulboak eta tuberkuloak ere landa litezke.



LOREAK ETA LANDAREAK

OTSANGO AUZOA · LESAKA · T. 948 637 826

LORE SORTAK
LORE-LANDARE KONPOSIZIOAK
NATURALAK ETA ARTIFIZIALAK

ZU lorendena
dekorazioa
osagarriak

Altzate, 33
31780 BERA

zuloredenda@hotmail.com
Tel.: 948 625 786



“TELLETXEA”
Lorazaintza

*Paisajismoa
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Kimaketak
Mantentzea lanak*



John Telletxea
Nekazal Ingeniari Teknikoa
Otxangoko Industrialdea, 18. industria-nabea
31770 LESAKA (Nafarroa)
T. 619 418 683 - F. 948 637 049
johntelletxea@hotmail.com

www.telletxealorezaintza.com



Azarotik udaberri aldera arte, landare gehienetsuenek hibernatzen dutenez, horixe da kimaketa edo mugarratzea egiteko sasoirik onena. Landarean egindako ebaketa hauei esker enborra eta adarrak indartu, hazkuntza erregulatu eta kaltetuta edo gaixorik dauden atalak kenduko dizkiogu landareari. Kimaketak zuhaitzari bizitza ere luzatzen dio, haizete eta elurteen kontra egonkorragoa bihurtzen du, bolumena txikitzen baitio. Kimatzen ez bada zuhaitza bera ere arriskuan egon liteke, adar-karga izugarria hartzen duelako.

Kimaketa egin aitzinetik, landarea aztertzea garrantzitsua da, adar eta adaska kaltetu, gaixotu edo hilak zein diren antzemateko. Hauek ebakitzeak ez dio landareari arriskurik ekarriko baina, horiez gainera, beste zein atal kimatuko ditugun erabakitzean, arretaz jokatu behar da. Landarearen erdialdea garbi geratu behar da, argia ongi iritsi dadin landare osora. Landareak, arbolak edo zuhaixkak itzal handia egin edo toki zabalegia betetzen duelako adajea murriztu nahi baldin bada, pixkanaka-pixkanaka moztu behar da, kontrako eragina (ugaltzen eta ugaltzen etortzea) gerta ez dadin.



Kimatzeko tresnak, adarraren (eta ez landarearen) tamainaren arabera hautatu behar dira. Adaska txikiak direnean, aski dugu esku-guraize txikia; dena den, hasi aurretik hobe dugu lanabesa behar bezain zorrotza dagoela egiaztatzea, ebaketa garbia izan dadin, atalik urratu gabe. Zerraz moztu behar diren adarrak kentzean, esku batekin adarra mantenduko dugu, bertzearekin zerratzen ari garen bitartean. Adarra handiegia delako heldu ezinezkoa baldin badugu, ebaketa hiru urratsetan egin behar da, azala ez urratzeko.



Mendian garbiketa lanak egin ondotik zer landatu?

Mendian zuhaixka berriak landatu behar diren garaian, aukeraketa egiteko orduan bi irizpide har litezke kontuan, batetik lurrak berak zer eskatzen eta ematen duen eta bertetik ustiatzaileak zein helburu dituen.

HARIZTIAK. Hiru harizti motetaz hitz egingo dugu, bertako hariztien basoak, haritz kandugabearen basoak eta haritz amerikarraren basoak. Orokorrean haritzaren egurra oso estimatua izan da, egur noble eta kalitate handikoa delako. Bere egurra oso erabilia izan da eraikuntzarako, fruitu eta hostoak berriz aziendak bazkatzeko.



Haritza (*Quercus robur*) haran sakonetan hedatzen da, hezetasuna dagoeneko guneetan. Harizti hauek dibertsitate handia eskaintzen duten basoak dira, bai flora eta bai faunaren aldetik ere. Bertako haritzaz gain, errazago egokitzen diren espezieak ere aurki litezke: haritz kandugabea ez da bertako haritza bezain exigentea. Leku idorrako eta malkartsuagoetan topa dezakegu. Haritz amerikarrak berriz, bertako haritzak baino ekoizpen altuagoa ematen du.

ARTADIAK. Hosto iraunkorreko haritzak dira. Edozein lurzorura ondo moldatzen da eta ikatza egiteko ere oso erabiliak izan dira.

PINADIAK. Pinu espezie ugari existitzen dira Euskal Herrian. Zuhaitz ugaria da eta nahiko preziatua. Zuhaitz aitzindari moduan ezagutzen da, nekazaritzarako edo abeltzaintzarako erabiltzen ez diren lurrak berriz oihaneztatuz. Baso hauetan ezpela eta epurua bezalako zuhaixkak topatzea oso ohikoa da. Intsinis pinua, (*Pinus radiata*), hazkuntza azkarrekoa, 30 urteren buruan mozteko prest egoten da. Larizio pinua (*Pinus nigra*) azkenaldian birlandaketak egiteko asko erabili da, ekonomia aldetik ere garrantzitsua bihurtu da.

PAGADIAK. Pagoaren (*Fagus sylvatica*) egurra oso preziatua izan da, horregatik asko ustiatu da basogintzan. Hazkuntza motela duen arren, behin tamaina bat hartzen duenean erraz nagusitzen da beste espezieak gaindituz. Itzal handia ematen duen basoa da, bere hostoek hartzen duten kokapen berezia dela eta. Espezieen nahasketak ere, onura besterik ez dakar: konpetentziak makalena ere bizkortzen du eta etekina denboran etengabekoa bihurtzen da. Orain batzuk, gero bertze batzuk landa litezke: su-egurra dela, biomasa dela, zur-egurra dela... helburuaren arabera.





MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK

SU EGURRA ETA
PIKETEAK SALGAI

Leku-Eder, Bustitz - 31791 SUNBILLA
altzurisi@yahoo.es - T. 948 450 504
M. 659 867 287 - 699 461 394

Carlos Txoperena

mendi garbiketak eta landaketak
ITXITURAK



Tel: 948 637 477
637 466 124
LESAKA

Ingurumen Zerbitzuak



- PINADIEN BALORAZIOAK
- LUR NEURKETAK
- MENDIETAKO DIRULAGUNTZEN TRAMITAZIOA
- INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA
IGANTZI - LEGASA - T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com



lorazaintza • jardineria

HIDROEREINTZA
Kimaketak, zerrakurak,
mantenimendua
ZUHAITZAK - ZUHAIKAK

KIMAKETA BEREZIAK:
14 metroko garabiarekin



FERMIN MARITORENA LARRALDE
Hegoalde karrika, 33 • 31780 BERA
666 407 214 • 948 631 199

ttipi txartelarekin
beti irabazten da!

ZOZKETAK

654. ALEKO
IRABAZLEAK:

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE
72673111-B

epemuga
04/2016
Zk. 123456

ttipi-ttapa

Ele Mele Jolasa | Urtxintxa
Jose Luis Bertiz | Sunbilla
Buatxabal kamiseta bat
Juan Miguel Ormart | Elizondo

Elkar "Hiru sopranoak" liburua
Maxux Goñi | Elbetse

Elkar "Eireren egunerokoa" liburua
Asunción Etxebere | Amaiur

Irrisarri Landeko 2 sarrera
Serafina Ezkurra | Leitza

Karta jokoa | Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Iñaki Ertze | Otsagabia

Bertsok 2010 DVDa | Lanku
Mercedes Aldaia | Beintza-Labaien
Eusebio Mitxelena | Doneztebe

Zorionak!!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

koskontako bidea 7 LESAKA
T 948 635 458 | F. 948 635 457
info@ttipi.eu
erran.eu

5 SESIOKO BONOIA
Toki Ona Berako Udal Kiroldetgia
www.urdisl.com

Urdisl Bera
SERVICIOS DEPORTIVOS / KIROL ZERBITZUAK

Toki Ona - Bera

UDAL KIROLDEGIA

5 sesioko bonoa
(muskulazio gela, sauna lehorra eta herzea)

Urdisl Bera



onddo
ta punto

KAMISETA BAT
Onddo ta Punto
www.buatxabal.eu

Zentru berria

Homeopatia, Kiromasajea,
Polaritatea, Dietak ...

ELIZONDO | %10, kontsulta edo terapietan



Leitza
Kafetegi
Okindegia

LEITZA | %5, gozotegian 25€tik gora

oreka

nutrizioa eta dietetika

LESAKA | %10, kontsultan eta
produktuetan



LESAKA | %10, lantzerian

libreria
nafarpress
liburudenda


ELIZONDO | %10, liburu eta ikas
materialetan, testu liburuak eta DVDak
izan ezik

LESAKAKO
UDAL
KIROLDEGIA

LESAKA | %40, matrikulan

Arrate Estetika Zentroa

DONEZTEBE | %10, Skeyndor Eternal
kremetan



ibaizabal

2 LIBURU | Ibaizabal argitaletxea
Hildako bizidunen itsas bidaia | Faroiaren gordelekua
www.ibaizabal.com

CD Pirritx, Porrotx, Marimotots
eta bonberenea txaranga
www.katxiporreta.com



Pirritx, Porrotx
eta Marimotots

2 SARRERA
Sorginen Lezeak
www.turismozugarramurdi.com

ZUGARRAMURDIKO
SORGINEN LEZEA



GU TA GUTARÁK



Lanku

2 CD GU TA GUTARÁK
Lanku
www.lanku.com

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 12 ETA 13AN

Asteburuan ospatuko dituzte inauteak



UTZITAKO ARGAZKIA

Garzteak auzoz auzo ibiliko dira eskean trikitilarien laguntzaz.

Larunbat arratsaldean orga apainduen desfilea eginen dute

TTIPI-TTAPA

Gainerako herri gehienetan bestondoa pasatzen ari direnean, Donamarian asteburu honetan ospatuko dituzte inauteriak, egitarau zabalarekin.

Otsailaren 12an, ortziraletan, herriko gazteak auzoetan barna ibiliko dira eskean moztrotuta. Arratsean aforia Herriko Ostatuan.

Otsailaren 13an, larunbat goizean gazteak Herriko Ostatuan elkartuko dira gosaltzeko. Ondoren, auzoz auzo ibiliko dira eskean trikitilarien laguntzaz. Bazkaldu ondotik herriari ibiliko dira eskean. 16:00ak aldera haurrak eta gurasoak plazan elkartu eta orga apainduetan Artze aldera abiatuko dira hangoekin elkartzeko. Gero Artze auzotik hasiko dira herriari itzulia ematen. Haur nahiz helduak moztroturik joanen dira. Ilunabarrean, jokoak egingo dira frontoian: sokatira, zapiaren joko... 20:30ak aldera haur eta gurasoen aforia Herriko Ostatuan. Beranduxeargo gazte eta helduek ere aforia egingo dute bertan. Arratsean dantzaldia izanen da Franzisko akordeoilariarekin.




GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · OTSAILAK 13
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ORONA IDEO · MARTXOAK 5
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · OTSAILAK 27
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

OÑATI · MARTXOAK 5
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · OTSAILAK 13
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

ARETXABALETA · OTSAILAK 13
LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 19
LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



Nerea Laburu
Gastronomia eta sukaldaritzarteak, 3.maila

#erronkarakoprest

MALERREKA

OSPAKIZUNAK → OTSAILAREN 20AN

Aspaldiko partez inauteriak ospatuko dituzte Ezkurran ere

Irazu eta Mendiluze bertsoan eta Oihana eta Oihana trikitilariak ariko dira afarian

Fernando ETXEBERRIA

Garai batean, Errege egunaren ondoko astean ospatu ohi ziren inauteriak Ezkurran, baina urteak dira ez zirela ospatzen. Aurten inauteriak egin bai, baina data aldatu zaie, otsailaren 20an ospatuko baitituzte, larunbatarekin

eta egitarau zabala presertatu dute egun horretarako.

Goizeko 11:00etan jarri dute hitzordua pilotalekuan, nahi duenak mozorrotua ager dadin eta gero kalez kale ibiliko dira musikarien laguntzaz. Arratsaldeko 4etan ipuin kontalaria



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze izanen dira afarian.

entzuteko aukera izanen dute neska-mutikoek Udaletxean eta gero, jokuak, txokolatea eta buruhandiak izanen dituzte frontoian.

Inauteri festa borobiltzeko, gaueko 9etan Barranka ostatuan ber-

tso-triki afaria antolatuko Udalak, Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze bertsoariekin eta Oihana eta Oihana trikitilari eta panderojoleekin. Afarirako erreserba egin behar da, 948 615080 telefonora deituz.

OSPAKIZUNAK → ILBELTZAREN 24AN

Urteko besta giro ederrean ospatu dute Eratsungo jubilatuek

Herrian meza entzun eta gero Ezkurran egin zuten bazkaria eta mus txapelketa

Fernando ETXEBERRIA

Eratsungo jubilatuek urteko festa ospatu zuten ilbeltzaren 24an. Eguerdian meza entzun zuten elizan, hildako bazkideen oroimenez eta gero Ezkurran Barranka ostatura joan zi-

ren. 21 lagun bildu ziren bazkarian.

Bazkalondoan, lau bikotek parte hartu zuten mus txapelketan. Horien artean, Migel eta Javier suertatu ziren txapeldun eta horrekin batera, ardoa eta gazta. Azpitxapeldun Jose Luis eta Emilio izan ziren eta hirugarren Juanito eta Luis. Hiru bikote hauek gainera, martxoaren 17an Donezteben jokatu den final handian parte hartzeko eskubidea ere irabazi zuten.



ARGAZKIAK: F. ETXEBERRIA

Eratsungo 21 jubilatuek parte hartu zuten urteko festan. Bazkalondoan, mus txapelketa jokatu zuten. Argazkian, txapeldunak, txapeldun ordeak eta hirugarren sailkatutakoak.

INAUTERIAK → URTARRILEKO AZKEN ASTEBURUAN

Kolore, umore eta musikaz betetako ospakizunak

Aiso ezagutzuz lehiaketa arrakastatsua izan da

Juana Mari SAIZAR

Urtarrileko azken asteburuak askorako eman zuten herrian: txatxoak, erraldoi eta buruhaundien konpartsa, etxe eta baserrietan eskea, pertsonaia xeble ugari han-hemenka... Eguraldiak ere asko lagundu zuten eta herritarrek gogotsu hartu zuten parte Lagun Artekoek antolatutako ekitaldi ugarietan. Eskolako haurren kalejirarekin eman zitzairen hasiera inauteriei, aurtengoan Lantzeko inauteria irudikatu dute, txatxoz jantzirik eta Miel Otxin panpina ere erre zuten plazan. Iluntzean herriko eskea egin zuten gazteek eta kuadrila ederra bildu ziren.

Larunbatean berriz, Guraso elkartekoek antolatuta, kalejira polita egin zuten ume eta gurasoek dultzainero, Kili-ki eta buruhaundiz jantzita. Horiez gain, eskean ibili ziren gazteek eta herri afarira herritarrek ere mozorro berexiak jantzi zituzten.

Aiso ezagutzuz lehiaketa izan zen aurtengo inauterietako berrikuntza nagusietakoa eta arrakastatsua izan zen oso. Aretoa beteta, parte hartzaile eta ikusleek primeran pasa eta herriari buruz zertxobait ikasteko aukera ere izan zuten. 9 herritarrek hartu zuten parte hainbat frogetan eta baita ongi aritu ere. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu zutenei eta baita udalari ere. Oso umore onean aritu ziren Inaxio Mari, Zuriñe eta Pedro talde berdean; Txomin, Lorea eta Migel talde gorrian eta Itxaso, Izar eta Beltza talde morean. Aretoa lepo bete zen eta ikusleak rato ederra pasa omen zuten. Sariak ere izan ziren denontzat, bai ikusle eta bai partaideentzat Berriak eskeiniak. Finalera ailegatu zen taldeak zakua eramateko aukera ere izan zuten, Euskara Mankomunitateak emandako diru boltsa. Antolatzaileek Aste Santu aldera beste lehiaketa bat prestatzeko asmoa dute oraingoan umeei zuzenduta, hemendik deia zabaldu nahi die animatzen hasteko.



ARGAZKIAK: JAIONE OLAZABAL, ANA GONI, ANE URRETA ETA ENERITZ AGIRRE

Bi egunez, giro bikaina izan da herrian.



ARGAZKIA: EDEN ALGERO

Euskal Herriko mus txapelketaren kanporaketa

Euskal Herriko Mus txapelketako lehenbiziko kanporaketa Pake Toki elkarte- an egin zen urtarrilaren zortzian. Zortzi bikotek parte hartu zuten eta Gorka Arraiago eta Imanol Baraibarrek lortu zuten garaipena. Bigarren kanporaketa Larrea elkartearen urtarrilaren 16an izan zen eta Miel Eraso eta Joxe Onsalo izan ziren irabazle. Elkarren arteko finala urtarrilaren 23an jokatu zuten eta Imanol eta Gorka irten ziren garaile. Dena den bi bikoteak klasifikatzen dira otsailaren 20an Arrano Elkartearen jokatu den Nafarroako txapelketarako. Bertan irabazi ezker Euskal Herriko finalera irteteko.

Ba al zenekien

Nekazaritzako ibilgailuen eta motorren urteroko inspezio teknikoa otsailaren 24an egingetako aukera izango dela autobus geltokian.



LEITZA

GIZARTEA → OTSAILAREN 4AN

Nafarroako Parlamentuko ordezkariak Okille tailerrera bisita egin dute

Aniztasun funtzionala dute pertsonak lan egiten dute bertan lan

JM BARRIOLA

Otsailaren 4an, Nafarroako Parlamentuko eskubide sozialetako batzordean dauden or-

dezkariek etorri ziren Leitza, Okille tailerra bertatik bertara ezagutzera. Batzordea osatzen duten hainbat ordezkari etorri ziren I-E eta PPko ordezkariak izan ezik: Geroa Baiako Consuelo Satrustegi, Maribel Gartzia (UPN), Mikel Buil (Podemos), Asun Fernandez de Galaralde (EHBildu) eta Nuria Medina PSNko or-



ARGAZKIA: PABLO FEO

Parlamentuko ordezkariak, Okille tailerrera egindako bisitan.

dezkariek hain zuzen. Harrera Leitzaoko hauetsi diren Markel Azkargorta eta Oihane Calderonek egin zieten, Virginia Eraso gizarte zerbitzuetako langileak eta Okilleko hezitzaileak Pablo Feok. Tailerrean 23 urte daramatzate la-

nean eta bisita baliatuz, urte hauetako historia ekarri zuten gogora. Tailerra zergatik sortu zen, zein helburu dituen eta gaur egun Leitzaan bebitzetan dituen funtzioak azaltzeaz gain, tailerren funtzionamendu eta finantzazioaz ere hitz

egin zuten. Ondoren tailerra bera bisitatu zuten eta bertako erabiltzaileekin solasteko tartea ere izan zuten. Gogoratu behar da Okille Tailerrak aniztasun funtzionala duten pertsonen laguntza eta zerbitzua ematen diela.



ARGAZKIAK: PABLO FEO ETA ENERITZ IRAOLA

Giro ederrean joan dira aurtengo ihoteriak

Urtero moduan, ilbeltzaren laugarren asteburuan hasi ziren herriko ihoteriak. Tenore honetan ohikoena giro hotza izaten den arren, aurtengoan eguraldi bikaina izan da. Parte hartze handia izan da, igandean 30 kuadrilla inguru atsauretu zirelarik, hauetatik 13 gurdi dotoreekin gainera. Astelehenean baserrietatik eskean ibili ziren kuadrillak musikariek lagunduta eta astearte iluntzean garai bateko ihoteriak eguneratuz "leitzako atsaureak" kalejira koloretsua egin zuten. Urtez urte indarra hartzen ari den mozorro pesta ikusgarri hau. Bezperan Erleta eskolako ume, haur eta gurasoek kalejira ere egin zuten. Pesta batzordeak balorazio baikorra egin du.

GIZARTEA

Udalerrri euskaldunen eguna Leitzaan ospatuko da

JM BARRIOLA

Pasa den Ilbeltzean egin zuten UEMAko kideek Batzar Nagusia Zarautzen eta bertan izan ziren Mikel Zabaleta alkatea eta Josune Marzol hautetsia herria ordezkatzeko. 2016ko lan ildoak eta helburuak finkatu zituzten eta Udalerrri Euskaldunen Eguna non eta noiz ospatuko den erabaki zuten: maiatzaren 28an, Leitza. 1994an sartu zen Leitza UEMAN eta urtez urte kide kopurua gorantz doa, urtea amaitzerako 80 bat udal izango dira kide.

OSPAKIZUNAK → SORPRESA INAUTERIETAN

Zahagi dantzari segida eman diote herriko gaztetxoek

Inauterietako larunbatean dantzatu zuten

Ainhoa ANSA

Espero genuenaren kontra, oso bestelako buelta eman diogu Arano inauterietako zahagi dantzaren historiari. Aranok belaunaldi bateko hutsaren kolpea bere gain izanagatik, eta gaztedi indartsu baten falta, gure herriko haur eta gaztetxoek irakasten ederra utzi digute gure bihotzetan.

Aurreko belaunaldia, 27 urtetik gorakoa, orain umeak direnekin elkartzeko ahalegina egi-

ten ari zenean, herrian gazte kuadrilla bat falta den momentuan, hariari tiraka ia eten arte... uste zen aurten zahagi dantzari ez zela eginen inauterietan. Umeek, ordea, ez zuten pronostiko hau aintzakotzat hartu eta beren buruak ziur agertu zituzten zahagi dantza dantzatzeko prest eta, meritua duena, erdiko zahagien pertsonaiak antzetzeko gogotsu. Horrela, inauteriek aurrera egingo dute oraingoz behinik behin, zahagi dantzaren testigua umeek hartu eta ederki defendatu dutelako. Ea urte askoan hala segitzen duten!



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herriko gaztetxoak izan dira aurtengo inauterietan protagonista.

ONDARE KULTURALARI SEGIDA

Aurten umeek egin dutena, ez dakigu ziur jakingo ote duten zein garrantzitsua den herriko ondare kulturalaren jarraipena ziurtatzeko. Gure esku dago euren jakinaraztea, egun hau oroimenean gorde eta ondorengoei gertatutakoa transmititzea!

Ez da ahaztu behar, lehen ere bi aldiz bederen etenda edo galtzeko arriskuan egonak zirela inauteriak. 60. hamarkadaren bukaeran orduko gazteek inauteriak errekuperatzeko ahalegina egin zuten, eta 90. hamarkadaren hasieran, galtzeko beldurrez, haur eta gaztetxoak bildu ziren talde-

ra goizeko puxka biltzea eta zahagi dantza egiteko. Trajeak berreskuratzeke lana ere egin zen, eta doinu txiki bat jaso eta plazaratu ere bai. Jende falta zela eta, puxka biltzerako zahar eta gazteak deitu ziren mende honen hasieran eta indar berri bat eman zitzaizen orduan inauteriei.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Merkealdia

edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

GOIZUETA

GIZARTEA → OTSAILAREN 19AN

Inauterien etorkizunaz eztabaida egiteko bilera deitu dute udaletxean

Hauek indartzeko interes berezia dago

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 8an egin zen inauteriei buruzko bilera irekian 40 bat herritar elkartu ziren inauteriei buruz hitz egiteko. Hauek indartzeko interes handia dago, baina metodoa adosteko iritzi desberdinak azaldu ziren bertaratuaren artean: batzuk, inauteriak asteburura aldatzearen aldekoak dira; besteak, egunak bere horretan mantentzearen aldekoak; eta eguna mantenduz, ekintzak tokiz aldatzearen aldekoak ere badira.

Aurtengoz ez da halako aldaketarik egin,



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Batzuk inauteriak asteburura aldatzearen aldekoak dira, egunak bere horretan mantentzearen edo egunak mantenduz ekintzak tokiz aldatzearen aldekoak ere badira.

baina inauteriak pasatuta jarraituko du eztabaidak. Esan bezala, eztabaidak jarraitzeko hurrengo hitzordua hau izango da: otsailaren 19a, ostirala, 18:30ean Udaletxean.

Bioingeniaritza ikastaroa

Donostia 2016 hiri-burutzako proiektuaren barrenean Bioingeniaritza ikastaroa egingen da Goizuetan. Tailer teoriako eta praktikoak eskai-

niko dituzte otsailaren 22tik 26ra eta 30 orduko iraupena izango dute. *Ibaitik badiara* proiektua Paola Sangallirena da eta Urumea erre-kari lotua dago. Feddy Rey baso ingeniaria izanen da hizlari. Langabe-tuak, formakuntzan dauden gazteak edo interesa duen edonoren-tzat izango da.

LEITZALDEA

27. Lilatoia prestatzeko entrenatzeko aukera zabalik

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 6an, 27. Lilaton lasterketa egingen da Donostian. Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizar-te Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun Batzordetik adin guztietako emakumeei animatzera eta parte hartzera gonbidatu nahi diete.

Lasterketak 5 kilometro ditu. Ongi prestatzeko eta arazorik gabe lasterketa bukatzeko Leitzaan entrenamenduak antolatuko dira, astearte eta ostegunetan 19:00etan poligonoaren hasieran. Taldeka egingen dira. Dena den ordutegiarengatik gaizki etorri-gero, Berdintasun Batzordeak prestatutako taulan agertzen diren gomendioak kontuan hartuz, bakoitzak nahi duen bezala prestatzen ahal du. Hain zuzen, astearte eta ostegunetako entrenamenduez gain, larunbatean ere entrenatzeko eta igandean ateralditxo bat egitea proposatzen dute. Astelehena eta ostirala atsedean egunak dira eta asteazkenak ere atsedean hartzekoak edo Cross Training egitekoak (bizikleta, igeri, tonifikazioa, pilatesa...).

TERESA LOPEZ DE MUNAINEKIN

Biodantza saioa egingen dute otsailaren 20an Udaletxeko Ganbaran

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 20an, larunbat goizeko 11etan biodantza saio bat antolatu dute Udaletxeko ganbaran. Saioa doan izanen da, ez da inongo adin mugarik edo prestateta fisikoren beharrik, ezta ongi dantza egin beharrik ere. Libre mugitzeko arropa eroso eta ongi pasatzeko gogoekin joatea besterik ez du eskatu Teresa Lopez de Munain irakasleak. Biodantza zer den eza-gutu eta gozatzeko aukera irekia izanen da, lagun guztientzako.



UTIZITAKO ARGAZKIA

Ez da inongo adin mugarik biodantza saioan parte hartzeko.

ZER DA BIODANTZA?

Musika, dantza eta mugimenduen bitartez gure pertsonalitatearen ahalmenetan sakontzea da biodantza, Teresa Lopez de Munainek aipatu digunez. «Dantza eta jokuen bidez modu dibertigarrian gorputz eta barne adierazpen librea bideratzen da, azalarazten da», dio antzezlea

eta urte luzez biodantza irakaslea denak. Lopez de Munain esanetan, «oso aberatza suertatzen da osasunerako eta ongizate orokorarentzat, dena mugitzen baitu, gorputza, afektibitate, sorkuntza eta bizitzari buruzko meditazioa. Bakoitzak bere neurrian egiten du, bizia izan arren oso erraza da gero».

GIZARTEA → ILBELTZAREN 27KO AGERRALDIA

Herri galdeketa loteslea eskatu du Aroztegia eta gero zer? Plataformak

Asteotan bilerak proposatuko ditu talde eta erakunde ezberdinekin

TTIPI-TTAPA

Aroztegia eta gero zer? Plataformaren ustez, alde guztietako adostasunarekin egingen den Baztan mailako herri galdeketa lotesle bat egitea da Aroztegiako proiektuaren inguruan irtenbide bakarra. Horrela jakinarazi du ilbeltzaren 27an egindako agerraldian. Plataformak dioenez, «inposaketaren aitzinean ariketa demokratiko batekin erantzutea proposatzen

du». Asteotan aldaketaren gobernu babesaren duten taldeekin zein tokiko administrazio erakunde ezberdinekin bilerak proposatuko dituzte aterabide hau planteatzeko.

Aroztegia eta Gero zer? Plataforma prest dago herri galdeketa loteslea aitzinerat eramateko kondizioak, epeak eta galderak adosteko mahai batean parte hartzera. Aldi berean, aldarrikapen hau aitzinerat ateratzeko hurrengo asteetan herri zein herrialde mailako kanpaina bat jarriko du martxan.

Aroztegia... eta gero zer? Plataformak dio «bere sorreratik Aroztegiaren proiektu urbanistikoaren izaera espeku-



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako Gobernuaren erabakia politikoa dela uste du Aroztegia eta gero zer? Plataformak.

latzailea salatu eta garapen eredu honen inguruko eztabaida» bultzatu nahi izan duela. Horretaz gain, proiektu honek Lekaroz, Baztani eta landa eremuari orokorrean ekarriko lizkiokkeen kalteak nabarmendu ditu behin eta berriz, «espekulazioan eta bezerokerian oinarritutako eredu delakoz, eta agortuta dagoen ustelkeriaz kutsatutako eredu delakoz» aurka agertu dira.

«ERABAKI POLITIKOA»

Erabakia non, nork eta nola hartzen diren, bultzatzen den garapen eredu honekin ere bat datorrela uste du Plataformak. «Lekarozko he-

riak, Nafarroako Gobernuko zenbait teknikarik, epaitegiek, herri eragile, Baztango Batzar Nagusiak, eta bertze hainbat ahots, proiektu honen aurka agertu arren, Geroa Baik UPNk bezalaxe UGPS/PSISaren erabilera guztiz antidemokratikoa eta bihurria eginez, kapitalaren interesei men egitea erabaki du. Argi utzi nahi dugu UGPS hau onartzea erabaki politikoa izan dela eta posible zein ezinbertzekoa dela erabaki honetan gibelera egitea. Argi utzi nahi dugu, baita ere, ez dugula horrelako inposaketarik onartuko, datorren tokitik datorrela» dio idatzian.

Bereziki larria iduritzen zaio Plataformari «herritarren parte hartzea bermatuko duela ozenki iragarri duen aldatetaren Gobernu batek» erabakiak modu honetan hartzea. «Mariano Rajoyk Catalunya-ko herriaren erabakitze-ko eskubidearen inguruan duen diskurtso berdina erabiltzen ari dira Geroa Baiko ordezkariak lekaroztarron eta baztandarron erabakitzeko eskubidearen inguruan», dio. Beraz, Gobernuaren parte diren edota babesten ari diren alderdi guztiek hausnarketarako tarte hartu beharko luketela uste du Aroztegia... eta gero zer? Plataformak.

LARRALDEA
eta
LINDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldi irekiera urtarrilaren 23an
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

BEHOBIA
Pneumatikoak eta zerbitzuak

Marka guztietako gurpilak
nitrogenoarekin puzeia dohainik

Mekanika orokorra
(olio aldaketa, frenoak, distribuzioak,...)

Alineazioak

Europa kalea, 18 - ZAISA | (Behobia) IRUN
Telf: 943 63 56 01 E-mail: neumaticosbehobia@gmail.com

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALETAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa
www.facebook.com/ttipi.eus

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

BAZTAN

GIZARTEA → HERRIKO NEKAZARI GAZTEEKIN EGINDAKO MAHAINGURUA OINARRI HARTUTA

XXI. mendeko nekazaritzari buruzko liburua argitaratu dute

Metaziri kolektiboaren eta Hazitik hozie tokiko garapenerako elkartearen arteko elkarlanaren emaitza da

TTIPI-TTAPA

Baztango nekazaritza XXI. mendean zertan den argitzeko nahiarekin Hazitik hozie elkarteak Julen Arburua, Aitor Azkarate eta Ana Iriarte baztandar nekazari gazteekin mahaiingurua antolatu zuen. Gogoeta horretan be-lanaldi-aldaketaz, sektoreko lan-baldintzetaz, formazioaz, herri-lurre-



UTZITAKO ARGAZKIA

Liburuaren azala

taz, nekazaritzako azpiegituretaz (hiltegia, kooperatiba...), kontsumitzaileen arduraz, bai-larako gainerako sektore ekonomikoei buruzko

harremanaz... aritu ziren. Orduan errandakoe-ondorio borobilak eskaini baino sektorea biziberritu eta indartzeko akuilu izan nahi zuten

eta, modu horretan, XXI. mendeko nekazaritza Baztanen liburuxka argitaratu dute.

Argitalpen hau Metaziri kolektibo editoria-laren eta Hazitik hozie tokiko garapenerako elkarte herritarraren arteko elkarlanaren emaitza da. Bi taldeak, Baztango mugimendu herritarren parte dira. Liburuxka hau ekonomia herritar, solidario eta bertokiratua sortzeko bailaran abiatu den prozesu sozialaren baitan ulertu beharra dago.

Liburuxka 3,5 euroan, ondoko tokietan salgai dago: Erratzuko Altxuko dendan eta Zubi Puntan, Arizkungo Dolaetxean, Elizondoko Axularren, On eginen, Nafarpresen eta Albaitaritzan.

FLASH

Bertso-antzerki-txotxongiloak haurrentzat

Ibai Esoain eta Garazi Urretabizkaiaeren eskutik Bikokote 4 eta 10 urte arteko haurrentzako bertso-antzerki-txotxongilo ikuskizuna eskainiko dute otsailaren 14an, igande arratsaldeko 5etatik aitzinera Irurritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Sarrera doan izanen da lekuak bete arte.

Bailableak Elizondoko plazan

Baztango Dantzariak eta Elizondoko Gaiteroak taldeen eskutik Bailableak izanen dira otsailaren 21ean, igandean 12:45ean Elizondoko plazan. Lehendik egindako saioetan bezalaxe, Muxikoak, Jotak, Larrain Dantza, Gaita eta bertze dantza herrikiokiak ikasi eta dantzatzeko aukera izanen da. Udalak laguntzen du ekitaldia.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizondoko Foru Plazan egin zuten salaketa.

BAZTANGO BILGUNE FEMINISTAK DEITUTA

Gasteizko neskatxoaren hilketari salatu dute elkarrataratzean

TTIPI-TTAPA

Gasteizen, 17 hilabeteko neskatxoa eraila izan dela salatzen kontzentrazioa deitu zuen Baztango Bilgune Feministak urtarrilaren 28an Elizondoko Foru Plazan. *Indarkeria sexistari aurre egin!!!* zioen pankartaren gibelean bildu ziren 30 bat lagun.



UTZITAKO ARGAZKIA

Kirola, ehiza eta gastronomia uztarturik Irurritako Olarin

Ehiza, kirola eta gastronomia uztartzen dituen jardunaldia burutu dute ilbeltzaren 27an Irurritako Olari jatetxean, Nafarroako Ehiza Federazioak eta Baztango Ehiza eta Arrantza kirol Elkarteak antolatuta. Abel Barriola pilotari leitzarria eta skeet olinpikoan aritzen den Itxaso Fagoaga kirolari lesakarra aritu ziren solasean. Ondotik, David eta Ruben Garate Olondriz, Olari jatetxeko sukaldariak ehizako haragiarekin prestatutako jakiak dastatzeko aukera izan zen. Ehiza eta Arrantza Elkarteari zapora gozoa utzi dio jardunaldiak, eta eskerrak eman nahi izan dizkiete bai solaskideei bai publikoari etorri baita Olari jatetxekoei ere.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean eskola bisitatu zuten parlamentariak.

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK

Elizondoko Lanbide Eskola Ikastetxe Integratu izendatu du

Goizetan eskainiko duen Hezkuntza formalaz gain, langabetuendako eta langileendako formakuntza ere eskainiko du arratsaldean

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Lanbide Eskolak 50 urte beteko dituenean, Nafarroako Gobernuak abenduaren 18ko 167/2015 Foru Aginduaren bidez, ikastetxea CIP Elizondo

Lanbide Eskola IIP izendatu du eta honekin batera Nafarroako Zentro Integratuen Sare Publikoan sartu du.

Zentro integratu izendapen honekin ikastetxea zonaldeko Lanbide Heziketako lehen Ikastetxe Integratua izanen da, baita Nafarroako Hezkuntza Departamentuarentzat erreferentziatzeko Lanbide Heziketa ikastetxea ere.

ZER DA LANBIDE HEZIKETA IKASTETXE INTEGRATU BAT?

Ikastetxe integratu baten jarduera hiru oinetan eraikitzen da: 1.- Hezkuntza formala: ikasketa erregulatua



UTZITAKO ARGAZKIAK

Giro ederrean ospatu dituzte inauteriak Anizen eta Berroetan

Ilbeltzaren 22 eta 23an inauteriak ospatu zituzten Berroetan. Aitzineko asteburuaran berroetarrek Anizera joan ziren, eta oraingo honetan aniztarren bisita jasozuten berroetarrek. Ortzilarean baserritarrek bisitatu zituzten, eta larunbatean herrietako etxeen txanda iritsi zen. Hogeigabeko goiti bildu ziren etxez etxe, eta giro xarmanta etzen falta izan. Dantza, kantu eta zenbait bihurkeri egin ondoren, elkartean bildu ziren herritar ugari, egunari Salaberriren doinu tartean akabera emateko. Gaba franko luzatu zen zenbaitentzat, eta bestondoarekin eman zioten akabera bi asteburuz luzaturiko inauterieri.

goizetan, 2.- Langabetuendako formakuntza eta 3.- Langileendako formakuntza, (azken bi hauek prestakuntza ez formalean eta arratsaldean).

Gainera ikastetxe integratu batek bere estrategiaren barne honako jarduerak gauzatzeko lan egiten du: urteetan lan esperientziaduten langileak nolabait titulatu edo gaitu (esperientziaren akreditazioa), internazionalizazioan parte hartzeko konpromisoa izan (Europar Erasmus+, Akitania akordioak...), Hezkuntzako Lanbide Heziketa sailak egiten dituen esperientzi pilotuetan zentro kolaboratzailea izatea, Irakas-kuntza Duala lantzeko konpromiso eta guzti honekin, kokatua dagoen eskualdeko lanbide-formakuntzako ikastetxe dinamizatzaile izatea.

Izendapen hau au-

rreapausotzat hartu du Elizondoko Lanbide eskolak, eskualderako bultzatu nahi duen Lanbide Heziketako Zentro Integratu Euskalduna eraikitzeko ahaleginean. «Nafarroako Gobernuak ere izendapen honekin proiektu honen aldeko urratsa ematen duela ulertzen dugu eta gure eskualdean Lanbide Heziketa Ikastetxe Integratu ofizialki sortu du», dio Maite Ariztegi zuzendariak.

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

CARLOS GARAIKOETXEA
ETXENIKE
abokatua
Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttapi.eus

BAZTAN

GIZARTEA → HAINBAT AGIRI BEREZI ETA INTERESGARRIREN GORDAILUA DA

Udal artxibategia osorik tratatzeko lanak abiatu dituzte

Lau urtez egingen dira lanak, 47.500 euroko aurrekontuarekin

TTIPI-TTAPA

Joan den urtearen akaberaz geroztik Baztango udal artxibategiak sortu eta gordetako dokumentazioa osorik tratatzeko lanak hasi dira. Lanaren helburua herritarrei zerbitzu hobea ematea izanagatik, artxibategia herritarren jakinmina pizteko hainbat agiri berezi eta interesgarriren gordailua da. Horien artean kaperatasun eskubidea aitortzen duen 1441eko jatorrizko agiriaren 1763ko kopia ederra aipatzen ahal da.

Bertzalde, Baztar Nagusiaren lehenengo akta liburua bertan atxeman daiteke. 1673koa izanik orduko bizimoduaren lekukotasuna ematen du eta, bitxikeri bezala, hartzak ehiatzeagatik egiten ziren ordainketak aipatzen ditu. Bertzalde XVIII. mendeko akaberako errolda dago. Zeinak, biztanleriaren, baserrien, ekonomia-aren, toponimia-aren eta bertze hainbat gai interesgarriren bilakerari buruzko informazioa ematen baituen. Agiri berezi horietaz gain udalaren eguneroko jardunerako beharrezkoak diren informazioak pilatzen dira bertan.

Artxi-boaren antolaketa eta katalogazioarekin kontsultak egite-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kaperatasun eskubidea aitortzen duen 1441eko jatorrizko agiriaren 1763ko kopia ederra.

ko denbora ttipituko da eta lana arinduko. Hala, herritarren eskaerak lasterrago erantzuten ahalgo dira. Bertzalde, bailarako ondarea den artxi-boak bere balioa berreskuratuko du, Baztango garapen historiko eta kulturalaz gain, bertze arlo aunitzi buruzko informazioa ere ematen baitu. Egin beharreko lanaren artean artxibategiko dokumentazioa kudeatzeko softwarearen garapena ere dago.

EREITEN ENPRESAK

Udal artxibategiak sortu eta gordetako dokumentazio osoaren tratamendua egiteko kontratazioa, eskaintza hobereena eginik, Ereiten enpresak eskuratu zuten. Lanak lau urtez egingen dituzte eta 47.500 euroko aurrekontua dute.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Baztar Nagusiko 1673ko lehenengo akta liburua eta XVIII. mendeko akaberako Berroetako errolda.

BAZTAN-BIDASOA

Otsailaren 20ko espexetarako martxan Kordobara joanen dira

TTIPI-TTAPA

Euskal Herria osoan bezala, Baztan-Bidasoan ere, Ezker Abertzaleak Abian prozesuari ekin dio. Prozesu hau abiatzearen arrazoi nagusia, Ezker Abertzalea osatzen duten talde desberdinek (Sortu, LAB, Ernai), beraien ahalmen guztia askatzeko duten zailtasuna eta amankomunean duten proiektua gauzatzeko estrategia birplanteatzea izan dira. Abian duela hilabete bat hasi zen jendearen ekarpenak jasoz eta ekarpena hoiekin eztabaidarako dokumentu bat idatziko da, hurrengo asteetan gauzatuko den eztabaida fasean lanitzeko.

Prozesuaren bigarren fase horri hasiera emateko, otsailaren 20an Espainiako estatuko kartzela guztietara martxak egingen dira, bertan dauden euskal preso politikoei prozesuan parte hartzeri gonbidatzeko ere.

Baztan-Bidasoaldeari dagokionez, Igor Portu preso lesakarra dagoen Cordobako espexera joanen dira bertako herritarrek. Idatzi honen bitartez, Baztan-Bidasoko Ezker Abertzaleak, herritar guztiak gonbidatu nahi ditu martxa horretara, herri bakoitzeko ohiko lekuetan izena emanez, eta Abian prozesuaren eztabaida fasean parte hartzeri ere.

GIZARTEA → AZPIEGITURAK ZAHARKITUAK DAUDE

Elizondoko Baztan berriko itzalaldia konpontzeko eginahalean ari da Udala

Behin betiko konponbidea azpiegitura guztia berritzea litzateke, baina hori udalaren ahalmenetik kanpo dago

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Baztan Berri auzoan azkeneko egunetan argi itzalaldiak izaten ari dira. Udaleko teknikariek harat hurbildurik, arazoa fase baten matxuran dagoela ondorioztatu dute, haatik, oraino ez dute matxura non den aurkitu ahal izan. Momentu-

an itzalaldiak jasaten dituen eremua mugatzen ari dira, poliki-poliki matxura harrapatu artio.

Elizondoko Baztan Berriko arazo hau Baztango bertze tokietan ere ematen da argiteri publiko azpiegiturak zaharrik daudelako eta enpalmeak lurrazpian, maiz putzutako arketeetan daudelako. Baztan Berriko kasuan azpiegitura zaharra ez izanagatik egiturazko arazo batzuk ditu. Udala bere ahalbidearen arabera matxura hauek konpontzen dabil. Behin betiko konponbidea azpiegitura guztia berritzea litzateke, baina hori udalaren ahalmen errealetik kanpo dago.

OTSAILAREN 21EAN

Fernando Anbustegi eta Julio Soto Istorio Trukea(n) Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Fernando Anbustegi eta Julio Sotok *Istorio Trukea(n)* emanaldia eskainiko dute helduentzat hileren 21ean, igandean 19:00etan Arizkunenean. Sarrera doan izanen da lekuak bete arte. Fernando Anbustegi, batetik, ipuin kontalaria: herriz herri, tokian tokiko pertsonaia batekin elkartuko dena, bere ipuinetako istorio berriak bizitzeko asmoz. Bertzetik, Julio Soto bertsolaria: ipuin kontalariak momentuan agindutako pertsonaiaren larrutik.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Pasabide kanadiarra Bagordiko bidean

Elbeteko Bagordi aldean kanadiar pasabidea egin du Udalak. Horrela, Bagordiko azienda buruak Elizondo-Elbete saihesbiderarat jaistea galeraziko da. Aitzineko legealdia artio Nafarroako Gobernuak nekazaritza azpiegituretako laguntzekin halako lanak finantziatzen zituen, baina laguntza horiek kendu zituzenez, udalak osorik beregain hartu du, denera 4.500 euro. Lanak Oskaritzek egin ditu. Baztan osoan kanadiar pasabideak egiteko eskari gehiago dago: Arizkun, Beartzunen, Lekarozen... Udalaren asmoa urtero bat egitea da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Indar Gorriren kontrako polizia operazioa gaitzetsi dute

Indar Gorriren aurkako polizia operazioaren harira eta Lekarozko Urko Gartzia atxilotuen artean zegoela jakinda, batzarre informatiboak egin zituzten otsailaren 1 eta 2an Elizondoko Gaztetxean. 80 bat lagun bildu ziren eta bertaratuek atxilotetak gaitzetsi zituzten. Otsailaren 3an aske utzi zituzten atxilotutako hemezortzi lagunak.

URDAZUBI

GIZARTEA → OTSAILAREN 3AN PARLAMENTUAN

Alkerdiko lezea Gizateriaren Ondare izendatzeko eskatu du SOS Alkerdik

Lezeen inguruan historiaurreko altxor gehiago dauden jakiteko ikerketa egitea eskatu diote Gobernuari



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Azken urteetan, harrobian 2 kilo baino guttiagoko lehegaiak erabiltzetik 1.500 kilo bitartekoak erabiltzera pasatu direla salatu du SOS Alkerdik.

«erabat ilegala» dela eta «atzera bueltarik izan ez duten ondareen kalteak» ekarriko dituela argi du SOS Alkerdik.

ERABILERA HANDITZEA

Plataformak emandako datuen arabera, 1999tik honat baliabideen erabilera aunitz handitu du harrobiak eta 46.000 metro koadro erabiltzetik 120.000 metro koadro erabiltze-

ra pasatu da. Harria mozterako orduan, «2 kilo baino guttiagoko lehegaiak erabiltzetik, 1.500 kilo bitarteko lehegaiak erabiltzera pasatu dira, urtean 21.000 kilo inguru».

Gaur egun urtean 863.000 metro kubiko lur mugitzen dute harrobian, baina ustiaketa-plan berriarekin 2.300.000 metro kubiko mugituko lirategi, 30

urtez. «Dantxarineko merkataritza gunetik, gaur egun bi kamioi pasatzen dira eta plana beteko balitz, 31 kamioi ibiliko lirategi».

Erabakiak hartzeko momentuan Urdazubiko bizilagunen ongizatea eta lehen sektore, turismo eta merkataritza lotuak dauden bertako jarduerak kontuan hartzeko eskatu zuten. Gainera gogorazi zuten 600 metroko segurtasun eremu horretan Alkerdi eta Leorlas auzoak daudela, etxebizitzak, bordak, landetxeak, jatetxeak eta baita Ikaburuako lezeak ere, «dimentsio hauetako segurtasun eremua ziurtatzea ezinezko egiten dutenak». Gainera, kontuan hartu behar da Nafarroako Paleolitiko garaiko grabatu baka-rrak bertan aurkitu direla eta horiek babesteko eskari berezia ere egin zuten. Aldi berean, inguruan gisa horretako «altxor gehiago» ote dauden ikertzea ere eskatu zuten SOS Alkerdik.

DATUA

31

KAMIOI

ibiliko lirategi egunean Dantxarineko merkataritza gunearen barna, ustiaketa plan berriaren arabera. Gaur egun 2 pasatzen dira.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA
102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • Tfnoa 943 623 130

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zugarramurdi errep. 3.km
URDAZUBI

Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla • Tel: 948 450 862

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.eus

GIZARTEA → HAMAR LAGUNI ATERPEA EMATEKO MODUAN

Donejakue bideko beilarientzat aterpetxea apailatzen ari dira apezetxean

Maiatzaren lehenean estrenatuko da

Franck DOLOSOR

Ondoko asteetan, Senpere etapa berria izanen da Donejakue bidean eta aterpetxea proposatuko zaizkie Galizia alderat doazen beilariei. Herriko etxeko langileak 10 lagunentzako aterpetxea moldatzen ari dira apezetxearen gibelako partean, berriki arte serorek okupatzen zuten apartamenduan. Herriarena den toki hau hutsa zen eliza emazteek Senpere utziz geroz duela zombait hilabete. Hortik pasako diren beilariei Donejakue bidean ematen diren zigiluak emanen zaizkie Senperetik pasa direla frogatzeko. Beilarien etxea maiatzaren lehenean estrenatuko da eta egun hauetan sortzen ari den herritar talde batek kudeatuko du. Senpere bigurutzeko batean kokatzen da eta orain Santiago bideak erakusten dituzten mapetan ere agertuko da.

Izarra beti Helbarrunen

Michelin gida ospetsuaren izarra erdietsi zuen duela zombait urte Auberge Basque Donibane Lohizuneko bide xaharrean den jatetxeak eta aurten ere sari ezaguna eman dio. Kezka eta ardura sortzen zituelakoan izarra ez zuela baitezpada nahi aitortu zuen duela ur-

te batzuk Cédric Béchade sukaldariak. Lasaitasunean nahiago duela lan egin zioen chef haundiak. Urte batzuk geroago ahatik izarra ematen dio beti Michelin gida ezagunak.

Musikaz blai

Otsailaren 21ean kantaldi ederra eskainiko dute Larreko gelan 16:00etan Carrere familia, Pil Pil eta Kartsuki taldeak ariko baitira taulen gainean. Kantuzaletasun handia bada gure herrian, eta inguruetan, eta ez da dudarik aintzek gogotik preziatuko dituztela hor eskainiak izanen diren euskal kantuak. Pantxoa eta Peio bikote mitikoa utzirik Pantxoa Carrerek kantuz segitzen du tarteka bere seme alabarekin orain eta Arbonatik etorriko dira senperarren gozamenarentzat.

Amuarrainaren besta

Amuarrainaren kofradian besta ospatuko da martxoaren 6an.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ihauteriak duela zombait urte Senperen, gaitzeko giroa sortzen zuten orduko gazteek ere. Tartean dago Lorentzo Bereau zena, Arantzatik Senpereratz bitzterat joan zena familiarekin.

XINGAR ETA ARROLTZE!

Marrazki bizidunetako pertsonai ezagunak agertuko dira otsailaren 13an ihauterien kariatarat

F. DOLOSOR

Marrazki bizidunetako pertsonai ezagunak Senperen agertuko dira otsailaren 13an ihauterien kariatarat gai hori hautatua izan baita aurten. Kariatarat barna egingen desfilearen ondotik, 17:30ean Zanpatzarren auzia eta erretzea egingen dituzte.

Ondoren, gaualdi moztortua gaitzetxean Zugarramurdiko Toomatxak eta Kanboko Reggae Zortzi taldeekin. Aintzineko larunbatetan Zirikolatzen euskal dantza taldeko gazteak etxez etxe ibili dira eskean animazio politikak eskainiz eta *Xingar eta arroltze* kantatuz!

Euskal Herri osoko kofradiek beren berezitasunak erakutsiko dituzte

goizeko desfilea eta mezaren ondotik. Kide berriak onartuko dituzte

kofradian eta gero 13:30ean urteroko bazkaria egingen dute.

OTSAILAREN 14AN LARREKO GELAN

Elirale konpainiaren 'Xihiko' musika eta dantza ikusgarria denentzat

TTIPI-TTAPA

Hego Lapurdiko Hirigunearen sasoin kulturalaren kari, Elirale konpainiaren eskutik *Xihiko* dantza eta musika ikusgarria antolatuko dute. Otsailaren 14an igandearekin Larreko gelan izanen da saio bat, 5 urtetik goitiko denentzat zabalik, 17:00etatik aitzin. Horretaz gain, bederatzik eskolentzako saioak eskaintzen ari dira otsailaren 8tik 12ra arte eta 1.500 bat ikasle ikusiko dute ikusgarria klasearekin.



ARGAZKIA: MARION MORIN

Elirale konpainia Larreko gelan egindako entsegua.

Pantxika Telleriaren koreografia Arantxa Lannes, Jose Cazaubon, Oihan Indart, Arkaitz Miner eta Jokin Irungaraik interpretatzen dute taula gainean.

SARA

GIZARTEA → URTARRILAREN 23AN JOKATU ZUTEN

Elizari aita-emeek irabazi dute Herriko Etxeko edantegiko mus txapelketa

Final ttikian Juan Jose eta Isabel garaile

Joana GERENDIAIN

16 ekipa hurbildu dira herriko etxeko edantegiak antolatu duen mus txapelketara. Finala ttikia Goizuetatik etorritako Isabel eta Juan Josek irabazi dute Mickael Ascarraga eta Daniel Calvet-ren kontra. Txapelkun handiak Elizari aita semeak izan dira Pipo eta Jakes bigarren lekuan utziz. Eguna ongi bukatzeko Les frères Ingalls taldeak giroa eman du.

Play Station txapelketa

Otsailaren 20 an, larunbatarekin, Herriko Etxeko edantegiak Play Station txapelketa bat antolatzen du. Jokalariak Fifa 16 jokoan desafiatuko dira. Izen emateak ostatuan egingen dira eta 5 euro galdetua da pertsona. Txapelketa arratsaldeko 2 etan hasiko da.

Xoko txapelketa

Pleka trinketeak xoko txapelketa bat antolatzen du bakarrik neskei idekia izan dena. Otsailaren 13 an, larunbata goizarekin, inazazio bat proposatzen du. Izen emateak martxoaren 5 a arte dira 05.59.54.22.06 zenbakira deituz. Txapelketa martxo erditsutan hasiko da.

Turismo bulegoa

Joan den otsailaren 1 ean turismo bulegoaren biltzar nagusia egin da. Oro har, meteo eder batek lagundurik 2015ko sasoina ona izan da. Ortillopitz eta Euskal pastizaren museoak 2014 ko kopurua atxiki dute, lezeak eta Larrungo trenak ere sasoin ona egin dute eta Etxola parkeak bere bisitari kopurua emendatzen ikusi du.

Urtean zehar turismo bulegoak antolatu dituen ekitaldi ezberdinek arrakasta izan dute, izan Sara VTT, kontrabandisten lasterketa, Lizarrietako besta, kukuso merkatua, biltzarra, Telethon... Biltzarrari dagokionez, aurtendik goiti bere antolakuntza elkarte baten esku izanen da eta ez gehiago turismo bulegoaren gain.

Bertzalde, otsailaren 15ean arratseko 7 etan, Lur Berrin informazio bilkura bat egingen da Laruneko treinen antolakuntza berria aurkezteko.

Selauru hustea

Martxoaren 6an, "Les amis de l'école publique" elkarteak selauru huste bat antolatzen du. Izen emateak otsailaren 26a aintzin egin behar dira izen emate orria postaz bidaliz ondoko helbidera:

Association Les amis de l'école publique eskola publikoa, plazida-

ko bidea, 64310 Sara. Leku batek 3x3mko tamaina du eta 15 euro balio du. Xehetasun gehiagorentzat 06 77 83 94 85 deitu behar da.

Kirol emaitzak

Urtarrilaren 24ean, Sarako Izarra taldeko errugbilariak Narrossen aritu dira eta galdu egin dute 9-3. Eskubaloian aldiz, Urtxintxak taldeko seniorrek garaipena ezagutu dute Pau Noustyko ekipari 25-18 irabaziz.

Urtarrilaren 31n, basurdeek 68-0 irabazi dute Campeteko ekiparen kontra. Eskubaloian seniorrek galdu dute 23-21 Bosdarosseko ekiparen kontra.



ARGAZKIAK: HERRIKO ETXKO EDANTEGIA

Goitiko argazkian, Elizari aita-emeak mus txapelketa irabazi ondotik, Pipo eta Jakes azpitxapelkunekin. Beheitian, Goizuetatik etorritako Isabel Etxeberria eta Juan Jose Apezteak irabazi zuten final ttikia, Mickael Askarraga eta Daniel Calvet-i gain hartuta.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

prezio zorabera
Martutzak-en



otsailaren 13a, larunbata · merkatu txikia
EGUN GUZTIA IREKITA
(goizeko 10etatik arratsaldeko 8etara)

EZKONTZAK

Iñaki Txomin Perez Irigoien eta **Aitziber Arana Valdivielso**, Zubietakoa, urtarrilaren 23an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Naiara Saralegi Olano, Leitzakoa, urtarrilaren 22an.

Jon Saralegi Olano, Leitzakoa, urtarrilaren 22an.

Oihan Castro Aldalur, Lesakakoa, urtarrilaren 19n.

Aimar Maritxalar Muñoa, Lesakakoa, urtarrilaren 20an.

Xan Azarete, Sarakoa, urtarrilaren 15ean.

Luka Serban Raileanu, Doneztebekoa, urtarrilaren 28an.


Maria Ilinca Raileanu, Doneztebe, urtarrilaren 28an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Ramoni Iturralde Pikabea, Alkaiagakoa, urtarrilaren 22an, 68 urte.

Jose Arrizurieta Azpiroz, Leitzakoa, urtarrilaren 22an.

Mirentxu Elizalde Santesteban, Iturongoa, urtarrilaren 24an, 51 urte.

Fermina Matxin Iso, Iruritikoa, urtarrilaren 24an, 96 urte.

Maria Josefa Uranga Iztueta, Doneztebekoa, urtarrilaren 25ean, 90 urte.

Juana Mugika Loiarde, Beintza-Labaiengoa, urtarrilaren 26an, 99 urte.


Victoriano Juanotena Aldaia, Beintza-Labaiengoa, urtarrilaren 28an, 83 urte.

Jesus Mari Mutuberria Jorajuria, Sunbillakoa, urtarrilaren 30ean, 86 urte.

José Luis Alli, Sarakoa, urtarrilaren 31n.

Manolo Romero Azkona, Berakoa, otsailaren 2an, 89 urte.

Rekordatorioak egiten ditugu



Koskontako Bidea, 7-1
LESAKA | 948635458



Antonia GOLDARAZENA OTEGI

Lesakan, 2013ko otsailaren 16an

III. URTEMUGA

Ama zenbat egin duzun gugatik orain ere laguntzen ari zara zerutik-zutaz oroitzean negarra heldu zait bi begietatik. Mila esker Antxoni, bihotz bihotzetik.

**BESARKADA BAT ZURI ETA BESTE BAT ARANTXARI
AITA ETA ANAIAREN PARTETIK
MAITE ZAITUGU**



Benantzio BALEZTENA SANTESTEBAN

Zubietan, 2016ko urtarrilaren 5ean, 62 urte zituela

Familia, senideak begiak malkotan gaude zure hutsuneak sortzen baitu hainbat atsekabe urtetan izan zarena joare soinuen jabe lagun on, adiskidea, herritarrentzat zutabe zure argia itzaltzen joan da suabe-suabe errege bezperarekin gelditu gara zu gabe zutaz oroituako gara hemen guztiok halare gugandik joan zaren arren gure bihotzetan zaude.

ZURE FAMILIA

Espainiako selekzioa azpitxapeldun izan da Polonian jokatu den Europako eskubaloi txapelketan. Txapelketa polita jokatu badu ere, finalean 24-17 galdu zuen Alemaniarekin.

Selekzioko partaide izan da Niko Mindegia doneztebarra, selekzio arteko bere lehen txapelketa handian eta, beraz, zilarrezko domina jantzita bueltatu da Poloniatik.

Gol bat ere sartu zuen eta espero baino minutu guttiago jokatu dituela onartu arren, alderdi positiboari begiratu eta egindako lanarekin gustora bueltatu da sorterrira.

Niko MINDEGIA | Doneztebeko eskubaloi jokalaria Espainiako selekzioarekin Europako azpitxapeldun

«Maila honetako talde batean jokatzeko dituzun minutu guztiak urrezkoak dira»

A. AROTZENA | DONEZTEBE

Ez du minutu aunitz jokatzetik izan Mindegia Europako eskubaloi txapelketan. Lehenbiziko partidetan zerbait aritu zen eta gol bat sartzerik ere izan zuen, baina lehen fasean Errusiaren aurkako azken partidari, Kroaziaren kontrako finalerdian eta Alemaniaren kontrako finalean, deialditik kanpo gelditu zen. «Minutu gehiago espero nituen –onartu dio TTPI-TTAPARI–, baina gustora nago egindako lanarekin. Hala ere, garbi dago maila hortako talde batean minutu guztiak urrezkoak direla, eta hori dut buruan oraintxe, alderdi positiboari begiratzen diot».

Hortaz, balorazio ezin hobea egiten du bere parte hartzeaz: «Opari baten moduan hartu dut aukera hau, bizi guztian egin dudana lanak ekarritako opari baten moduan. Esperientzi arrot on izan da eta aspaldian ez bezala disfrutatu dut eskubaloiak», erran digu. Finalean faborito izan arren, galdu egin zuen Espainiak, baina zilarrezko domina lorpen garrantzitsua dela uste du Mindegia: «Nik usate denborarekin gehiago baloratuko dela. Finala galtzeak min egin zigun, batez ere txapelketa guztiko partidarik



UTZITAKO ARGAZKIA

Gaur egun Hungariako MOL-Pick Szeged taldean ari da Errekako harribitxia.

kaxkarrena jokatu genuelako, baina gustora egoteko modukoa da».

Hain zuzen, Iker Romero Gasteizko jokalaria ohiarekin batera ikusi zuen finala harmailetik. «Nire bizitzan gaizkien pasatu dudana partida izan da, gehien sufritu dudana partida izan da, gehienbat bertzei dena atera eta zure taldeari deus ez zaiola ateratzen ikustean», aipatu du. Dena den, txapelketa hasi baino lehen zilarra lortzea sina-

ESKUBALOIAZ GOZATU
«Opari baten moduan hartu dut Europako selekzio arteko txapelketa jokatzeko aukera hau, bizi guztian egin dudana lanak ekarritako opari baten moduan. Esperientzia arrot on izan da eta aspaldian ez bezala disfrutatu dut eskubaloiak».

tzeko moduko emaitza zela azpimarratu du.

Europako txapelketa irabazteak Joku Olimpikoetarako sailkatzea zekarren saritzat. Hori ez du lortu Espainiako selekzioak eta apirilean jokatu den Aurreolimpikoan izanen du berriz horretarako aukera, Suedia, Eslovenia eta Irango selekzioen aurka. Niko Mindegia ez du xamur ikusten txapelketa horretan jokatzea: «Europako txapelketa ikusirik, zaila iza-

nen da preolimpiko eta olinpiadetakara joatea nerretzat. Baina esperantzaz ez dut galtzen eta buru-belarri lanean jarraituko dut horrat iristeko».

HUNGARIAN GUSTURA

Errekako eskubaloi harrobiak emandako harribitxirik onenak Iruñerako bidea hartu zuen 16 urterekin eta hiriburuko bi klubetan, Portland San Antonion eta Anaitasun eman zituen sei denboraldi. Bertze bi urte egin zituen Logroñoko Naturhouse La Rioja taldean eta 2013. urtetik honat Hungariako MOL-Pick Szeged taldean ari da gogotsu lanean, arden Europako Champions-eko final laurdenetara sartzeko eta edozein talderi lana emateko helburuarekin. «Champions-a arden arrot gogorra izaten ari da. Partidu aunitz eta denak oso zailak. Aurrera pausu garrantzitsuak egiten ari gara Pick-en eta espero dut bide horretan jarraitzea». Hungarian bertan, liga edo kopa Veszprem ahalguztidunari kentzea ere lortu nahi luke Nikok, «oso garrantzitsua izanaren litzateke gure klubarendako, ilusio handia dugu bi kompetizio hauetan, zeren Pick-eko afizionatuentzat balio handia dute».

HERRI KIROLA → OTSAILAREN 18TIK 21ERA

Munduko txapelketara doa Beti Gazte sokatira taldea

Euskadikoan zilarrezko domina eskuratu dute 640 kilokoan

TTIPI-TTAPA

Hamabi urteren ondotik, berriz ere Munduko sokatira txapelketan parte hartuko du Lesakako Beti Gazteko gizasemeen sokatira taldeak. Hain zuzen, hilaren 18tik 21era dute hitzordua Holandako Volendam hirian.

Lehendik badaki zeren Munduko txapel-dun izatea Beti Gazte,

1999. urtean Irlandan, 2000.ean Holandan eta 2004an Eskozian lortu baitzuen urrezko domina. 2004az geroztik ez da Munduko txapelketan aritu gizasemeen taldea (emakumeen taldea 2010ean Italian lehiatu zen, Cesenaticon).

Orduan txapel-dun izandako beteranoen eta gazteen arteko nahasketa dute aurtengo taldean: Gerardo Telletxea da beteranoena, 47 urterekin eta Xuban Larretxea eta Julen Palenzuela gazteenak, 18rekin. Pisu arinene-tan ariko dira, 600 eta 560 kiloko kategorietan.



ARGAZKIA: XAGU-LESAKA

Beti Gazteko tiralariak, Euskadiko txapelketan 640 kiloko zilarrezko domina lortu ondotik.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Nafarroako txapel-dun izan ondotik, eta Holandara abiatu baino lehen, hau idazterakoan Euskadiko txapelketan murgildua dabil Beti Gazte taldea. Historikoki pisu arinene-tan hobeki moldatu bada ere, 640 kilokoan zilarrezko domina jantzi du uste-kabeen. Otsailaren 6an 600 kiloko finalean ari-ztekoa zen Idiazabalen eta otsailaren 13an 560 kiloko jokatu du Erandion (Bizkaia). Bietarako itxaropentsu zeuden tiralariak.

BETI GAZTE SOKATIRA TALDEA 2015-16

Tiralaria	Adina	Herria
Gerardo TELLETXEA AIZPURU	47	LESAKA
Agoitz ALTZUGARAI MAIA	26	LESAKA
Beñat ORONOZ INDA	24	LESAKA
Juan Mari IRIGOIEN URROZ	35	ELIZONDO
Mikel APEZTEGIA MENDIBERRI	31	LESAKA
Carmelo MITXELENA MITXELENA	41	LESAKA
Markel SUAREZ ANT XORDOI	26	LESAKA
Ander MITXELENA TAPIA	24	IGANTZI
Paxkual TABERNA ZUBIRIA	43	LESAKA
Ion SILVEIRA ETXEBERRIA	37	LESAKA
Stephane MITXELENA	35	EZPELETA
Xuban LARRET XEA ALTZUGARAI	18	LESAKA
Lander LANDIRIBAR GOIENETXE	24	AMAIUR
Beñardo IANTZI MITXELENA	45	LESAKA
Julen PALENZUELA ETXEPARE	18	LESAKA
Iñigo ALTZUGARAI LEGAZKUE	27	LESAKA
Prestatzailea:		
Iosu IRIGOIEN RECLUSA	41	LESAKA

HERRI KIROLA → OTSAILAREN 21EAN

Munduko Aizkolari Azkarrena nor den erabakiko da Tolosan

Felix Etxeberria eta Ruben Saralegi izanen dira eskualdeko ordezkariak

TTIPI-TTAPA

Aizkolari Azkarrena Munduko Aizkolari Txapelketaren lehen kan-

poraketa jokatu zen ilbeltzaren 31n Agurainen. 16 aizkolari lehiatzen eta bi txartel jokoen ondoren, otsailaren 21ean Tolosan jokatu den finale-rako. Azkenean, Ruben Saralegi leitzarrak eta Felix Etxeberria sunbildarrak lortu zuten. Kanporaketa moduan aritu ziren binaka, txanda ba-

koitzean 45 ontzako bina enbor moztuz eta galtzailea kanporatuz. Leitzarra eta sunbildarra gelditu ziren azkeneko.

Hain zuzen, Tolosako final horretan lekua segurtatua dute gaur-gero Hegoaldeko lau herrialde-tako txapel-dunek (Iker Vicente Na-



UTZITAKO ARGAZKIA

Munduko txapel-dun den Lawrence O'Toole australiarra ere Tolosan arituko da.

farroan, Atutxa II Bizkaian, Jauregi Araban eta Azurmendi Gipuzkoan), baita Munduko txapel-dun den Lawrence O'Toole australiar-ak Italia eta Txekiako txapel-dunek. Antolaitzaileek Suitza eta Frantziako txapel-dunak ere gonbidatu dituzte, bai-

na beraien partehartzea zalantzan dago oraindik.

Asteburu honetan jokatzekoa zuten beste kanporaketa Gipuzkoa eta Bizkaiko aizkolari-ek eta Leitzako Jon Rekon-dok eta Otsagabiako Daniel Vicentek, bertze bi txartelen bila.

otsailak 11 - otsailak 25

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Ikuskizunak



SENERE | 2016.02.14

Elirale konpainiaren eskutik musika eta dantza emanaldia

Xihiko emanaldi berria taularatu du Elirale konpainiak Larreko gunean 17:00etatik aitzinera. 5 urtetik goitiko haurrei zuzendua dago saioa.

Tailerra



GOIZUETA | 2016.02.20

Biodantza zer den ezagutzeko aukera Udaletxeko ganbaran

Musika eta dantzarekin bizipenak eragitea da biodantzaren helburua. Teresa Lopez de Muniainek eskainiko du tailerra 11:00etatik aurrera.

Zinema



DONEZTEBE | 2016.02.20

Herri txiki infernu handi saioaren emanaldi herrikoia

Pagadi eta Gurrutxagak Donezteben grabatu zuten saioa berriro ikusteko aukera izanen da 19:00etan Zinema aretoan.

Bertsolaritza

DONEZTEBE

Berto afaria Soto eta Arzallusekin

Otsailaren 20an, Kafe ostatuak antolatuta.

EZKURRA

Berto-triki afaria

Otsailaren 20an, Irazu eta Mendiluze bertsolariek eta Oihana eta Oihana trikitilariak girotutako afaria.

Dantza

ELIZONDO

Bailableak

Otsailaren 21ean, Baztango Dantzariak eta Elizondoko Gaiteroak taldeen eskutik 12:45ean Elizondoko plazan.

Ospakizunak

BERA

Zuhaitzaren eguna

Otsailaren 13an, 09:00etan Alzateko plazatik abiatuta.

ETXALAR

Arkupeak elkarteko kideen besta

Otsailaren 21ean, Meza eta bazkaria.

ERRATZU

Hazien eguna

Otsailaren 27an bertako hazia bultzatuz egun osoko besta.

Musika

SENERE

H-Eden taldearen kontzertua

Otsailaren 14an, 17:00etan Larraldean.

ERRATZU

Joseba Irazokiren kontzertua

Otsailaren 19an, 23:00etan Zubi Puntan.

Tailerrak

ELIZONDO

Fruta-arbolak kimatzeko tailerra

Otsailaren 13an kimatzen aritu direnendako eta 14an hasiberriendako.

ETXALAR

Estresa nola gobernatu

Otsailaren 16 eta 23an eta martxoaren 1ean Larraburuan 10:30etik 12:30era.

GOIZUETA

Biodantza

Otsailaren 20an udaletxeko ganbaran 11:00etan.

Hitzaldiak

ELIZONDO

Hassana Alia hizlari

Otsailaren 26an, 19:30ean Arizkunenean. Sahara eta sahararren egoeraz.

DONEZTEBE

Naffa polisarioko gertari ohia

Otsailaren 27an, 18:00etan Zinema aretoan bere bizipenen berri emanen du.

DONEZTEBE

Fibromialgiari buruz hitzaldi-tailerra

Otsailaren 11n Osasun Zentroan 09:30etik 12:30era.

DONEZTEBE

Seme-alaben jokabide desafiatailearen aurrean zer egin?

Otsailaren 22an Carmen Nieto psikologoak eskainiko du. Eskoletako liburutegia 14:50ean. Erreka eta Mendaur Guraso elkarteek antolatua.

Antzerkia

IRURITA

'Bikokote'

Otsailaren 14an, 17:00etan Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean. Bertso, antzerki eta txotxongiloak biltzen dituen haurrentzako emanaldia.

Filmak

DONEZTEBE

Loreak

Otsailaren 13an Doneztebeko zinemari.

Herri txiki infernu handi saioa

Otsailaren 20an 19:00etan. Herrian grabatutako saioaren emanaldia, zinemari.

Inauteriak

DONAMARIA

Gurdi desfilea

Otsailaren 12 eta 13an.

EZKURRA

Berto eta trikitilariak

Otsailaren 20an

PROPOSAMENA

DONAMARIA, EZKURRA

Inauterien azken astinduak

Gainerako herri gehienetan inauterietako ajea ezin pasa dabilzan bitartean, Donamarian mozorroak aterako dituzte karrikara. Otsailaren 12 eta 13an ospatu dituzte inauteriak eta larunbateko orga apainduen desfileak ez du hutsik eginen aurtengoan ere. Hauen ondotik, Ezkurrara iritsiko da inauteri giroa. Otsailaren 20an jarri dute bertan hitzordua. Eutsi bestari!



SENPERE

Carrere familia, Pil Pil eta Kartsuki taldeak

Otsailaren 21ean, 16:00etan Larreko gela.

SARA

Tumatxak taldearen kontzertua

Otsailaren 27an, 19:00etan Luberri gela ariko da Zugarramurdiko taldea.

Ikuskizuna

SENPERE

Xihiko dantza eta musika emanaldia

Otsailaren 14an, 17:00etan Larrekon, Elirale konpainiaren eskutik. 5 urtetik goitiko haurrendako.

Mendi ateraldiak

BERA-GOIZUETA

Agerra Mendi Taldearen eskutik

Otsailaren 21ean. Irteera Agerratik 07:00etan, Aginatik autobusa 08:15ean eta autobusez 11:00etan. Izen-ematea otsailaren 17ra arte.

Kirola

ESKUALDEA

XVI. Paxaka txapelketa

Otsailaren 14ra arte Ligaxkako lehenengo faseko partidak jokatuko dituzte.

SARA


Joko berri xapelketa

Apirilaren 23ra arte, Pleta trinketeen partidak. Asteartetan 19:30ean, ortzeginetan 18:00etan eta igandetan 10:00etan.

Ekitaldi gehiagoren berri izateko, begiratu: **erran.eus**

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Lur eta amets, Euskal Herriaren historia

BATZUEN ARTEAN

Ikastolen Elkarte, Elkar eta Katxiporreta 2015

Oinarrizko liburu dinamiko eta erakargarri honek Euskal Herriaren historiaren kronika jasotzen du, antzinatek hasi eta gaur egunera arte; zortzi gaitan sailkatuta, beti ere ordena kronologikoan. Amona Andereren ahotsaren oihartzuna jasoko dute irakurleek, Lur eta Amets anai-arreben bizipenen aztarna eta Baltaxar katuaren hitz jostari eta zirtolaria. Hitzez gain, ilustrazioak ere baliatu dituzte; historiako hamaika pasarte esanguratsu jaso dituzte kolore biziz apaindutako marrazkiekin, errealismo handiz baina modu jostarian. Izan ginena ezagutzera eman, oraina sortu eta etorkizuna irudikatuzeko ezagutza-liburu baliagarria.

Musika




Margotu berria

BEIRA

Baga biga, 2015

Musikatutako bertsoak eskaintzen ditu Beirak. Mimatutako letrak eta mimoz jotako notak. Bost partaide ditu taldeak: Igor Arruabarrena (kitarra jolea), Jon Martin (abeslaria), Urzi Olaziregi (baxujolea), Gari Amundarain (kitarra jolea) eta Mikel Arruabarrena (bateria jolea). Bigarren diskoa *Margotu berria* kaleratu dute 2015ean, ongi zaindu eta idatzitako letrak, rock erritmo eta melodia disdiratsu desberdinak lotzen dituen. Hamar abestik osatzen dute diskoa eta tartean, 800 dukado izenekoak Sunbillan egiten den Emakumezkoen munduko Mendi Maratoia izan du oinarri, emakumeek kirolean protagonismo gehiago izatea aldarrikatuz.

Internet




Aplikazioa jeitsi, duintasuna igo

WWW.AKUILARI.EUS

Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin harremanetan modu azkar eta eraginkorrean jartzeko tresna da *Akuilari*. Mugikorrerako aplikazio honek erabiltzaileei aukera ematen die Behatokiari kexa bidaltzeko, euskara erabiltzeagatik kaltetuak izan badira edota erakunde edo norbanakoren batek hizkuntza eskubideak urratu badizkie. Baina kexak bidaltzeko ez ezik, aplikazio honek hizkuntza eskubideak errespetatzen dituzten erakundeen jarrera txalotzeko ere balio du. Gainera, beste erabiltzaileek Behatokiari helarazitako kexa edo zorian mezuak ikusteko aukera ematen du, bai eta mezu horiek sare sozialetan partekatzeko ere.

Nire aukera



Ander OSTOLAIZ
Lesakako gaztea

«Lesakarrak pertsona atseginak, lagun onak eta bestazaleak dira»

Pertsona «lasaia eta alaia, etxean egotea gutxi gustatzen zaion horietakoa» da Ander. Denbora librean «futbola eta eskalada» praktikatzea gustatzen zaio eta baita «Lesakara familia bisitatzera» joatea ere. «Oraingoz oiartzuarra» den arren, «erdi lesakarra» sentitzen dela aitortu du, bertakoa baitauka ama eta gainera «amatxi» hantxe bizi da. «Unibertsitatean hasita» oiartzungo futbol taldea utzi eta «uda batean» Lesakan zegoela «kirol pixka bat egiteko Beti Gazte taldearekin entrenatzen hasi eta fitxa egiteko» esan zitoten. «Oartzunen aurkako partidak lagun aurka izaten ziren eta pike ona» egoten zela oroitzen du. Azkenaldian lana dela eta, «hilabetean behin» bakarrik egiten du Lesakara bisita «feriak, olentzeroa, inauteriak, sanferminak... besta konkretuetan». Lesatik gehien «besta giro» hori gustatzen zaiola aitortu du. «Lesakarrak pertsona atseginak, lagun onak eta bestazaleak dira», horregatik pasatzen du «ezin hobeto» lagunei eta familikoei bisitan joaten denetan.

ETXEBIZITZAK
salgai

ORONAZ-MUGAIRI. Pisuak salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobilizatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagarriak baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobilizatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia mobilizatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 63.000 euro. ☎646 774117.

LESAKA. Berritutako pisua salgai Albistur kalean. 75m²ko azalera du eta bizitzera sartzeko prest dago. Mobilizatuta, bi logela, bi komun, sala eta sukaldia berria ditu. Oso eguzkitsua da eta bista ederrak ditu. 110.000 euro. ☎688 861267.

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

DONEZTEBE. 120m²ko pisua eta 49 m²ko garajea salgai. Pisu argitsua, 3 logela, 2 komun, sukaldia, eta egongela handia. Oso argitsua. Berogailua lurreko sua eta gasarekin. Bizitzera sartzeko prest. ☎676 965394.

LEGASA. Baserrira salgai, mobilizatua. 3 solairu ditu 110m²koa bakoitza eta 6.000m²ko lur eremua. ☎607 446909.

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

LESAKA. Pisu errentan eman nahi da, sukaldia elektrikoa eta su bajuarekin. Trastelekua, balkoia eta garajea ditu. ☎661 262531.

BERA. Agerra auzoan pisua errentan eman nahi da. 3 logela, 2 bainugela, egongela handia, 2 balkoi, igogailua

eta berogailua ditu. Deitu 15:00etatik aitzinera. ☎628 512905.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

LESAKA edo inguruan etxebizitza errentan hartu nahi da. ☎642 993776.

Bortzirietan **baserri edo borda** bat errentan hartuko nuke, 2 hektarea inguruko lur eremuarekin. ☎655 028593

Baztan eta inguruan errentan hartzeko pisu bila nabil. Altzaririk gabe baldin badago ere berdin hartuko nuke. ☎646 330956

Baztanen berritzeko dagoen **baserri edo borda** errentan hartuko nuke, erosteko aukerarekin. ☎663 591776.

GARAJELOKALAK
errentan emateko

LESAKA edo inguruan

arte eta artisautza tailerra montatzeko bajera edo lokal bila gabiltza alokairuan hartzeko. Handi xamarra bada hobea. ☎645 013213.

LURRAK/ORUBEAK
salgai

ARANTZA. San Jose mugartean landa-lurztatia salgai. 5. poligonoa, 745 partzela, belagia, 885,59 m²ko azalera. Prezio negoziagarria. ☎619 957962 (deitu mesedez arratsaldez. 16:00etatik 20:00etara bitartean).

ZERBITZUAK
zurgindegiak**ARANTZA**
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

ZERBITZUAK
klase partikularrak

Ingeleseko eta txinerako klaseak ematen ditugu Beran, Agerra auzoan. 40 euro hilabetea. Irakasle titulatuak eta atzerrian ibiliak. ☎600 309807.

**ZERBITZUAK**
psikoanalistak

ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu ordua
☎ 948 272011 (IRUNA)
☎ 948 580975
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

LANA
eskariak

Bera edo Lesaka inguruan emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, adineko jendea zaindu, bulegoak garbitu... ☎948 630914/☎678 903294.

Lesaka edo inguruan **emakumea lan bila** dabil. Garbiketa lanak egin, adinekoak edo haurrak zaindu, dendetan kutxazain edo biltegian aritzeko prest. ☎642 993776.

Neska gazteak bere burua eskaintzen du **arratsalde eta asteburuetan** lanean aritzeko; haurrak zaintzen, etxeak garbitzen eta baita komer-

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(urtarrilaren 22tik 29ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 36 €

Zerri gizena
0,948 € kiloak.

Zerramak:
0,540 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,98
1.koa 3,75
2.koa 3,55

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,24
1.koa 3,97
2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00
idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberrak: 3,03/3,13
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,70/7,70
8-10 kilokoak: 6,30/6,50

tzioetan ere. 9 urteko esperientzia komertzioan. ☎618 968580.

Hainbat sektoretan esperientzia duen gizonetza lan bila dabil. Gehienbat eraikuntza arloan, pinturan, zurgin lanetan eta lorezaintzan aritua. Orain lan bila dabil edozein sektoretan lan egiteko: garbitze lanetan, eraikuntzan, pinturan, lorezaintzan... ☎616 368 222.

Adineko pertsonak zaintzen esperientzia daukan emakumea naiz. Lan bila nabil **interna moduan adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko.** Interesa baduzue eskertuko nizueke deitzea ☎644 866609.

LANA eskaintzak

LESAKA. Atxaspi hotolean sukaldaria eta garbitzailea behar ditugu. ☎628 610019.

On-line lanean aritzeko, zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

URDAZUBI. Burkaitzea jabetxean sukaldari profesionala behar da, esperientzia duena eta batez ere postreterako eskua duena. ☎675 939036.

ITUREN. Euskal dantzak erakusteko irakaslea behar da hiru talderi, 40 ikasle ingururi, klaseak emateko. Interesa dutenek deitu telefono honetara ☎646298568.

MOTORRAK tailerrak



MOTORRAK salgai

Peugeot 406 kotxea

salgai. Turbo Diesel Coupe. 21.700 kilometro. ☎948 393041.



Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa

VW SHARAN 2.0 TDI 140CV DSG
AUTOMATIKOA - 7 PLAZA

FORD FOCUS FAMILIARRA
2011. URTEKOA

BMW 118D 143CV
2008 URTEKOA

Irún-Iruña errepidea
N-121-A 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

ANIMALIAK salgai

GOIZUETA. 4 urteko zezena. Mendiko limo-

sina. ☎680613474.



ANIMALIAK oparitzeko

Zakurkumeak oparitzeko. Aita artzain zakurra (oso ona) eta ama ere oso zintzoa. ☎650 797669.

DENETARIK salgai

Akaziako piketeak salgai. ☎667 885749.

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramena da. ☎676 242520.



Gerezizko mahai bobobila eta 6 aulki salgai. Mahaia bi metro luze arte luzatu daiteke. Arrontz goera onean.

Prezio negoziagarria. ☎606 735669.



Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.



DENETARIK erosi

Erremolkea erosi nahi nuke, **bobinak eramatekoa** balitz hobea. 2000 eta 2004 urte artekoa. ☎642 993776.

DENETARIK bertzelakoak

LESAKA. Goizargi arropa dendan galtza-barrenak hartzen ditugu, nahiz eta bertan erosiak ez izan. Mairu jantziak ere egiten dira. Etorri eta kontsultatu itzazu aukera desberdink. ☎616 520768.

RENAULT
Passion for life

Deskubritu **MICHELIN**

Orain

%70 eko DESKONTUA
bigarren unitatean

NEGUrako ere homologatuta dauden **UDA**ko pneumatiko bakarrak

renault.es/posventa

Saldu ondoko Renault zerbitzua

SANTESTEBAN TAILERRAK

Leitzoko errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

DENETARIK galdu/aurkituak

Tekel arrazako zakurra falta da, kolore beltz-marroia du. Azkenekoz urtarilaren 17an ikusi zuten Irisarriko sarreran. ☎653 122074.



IRA-GARKIA

aldizkarian interneten

10 EURO

ttipi-ttapa
Tel. 948 635 458
erran.eus

ttipi-ttapa **DISEINU GRAFIKOA**

IRUDI KORPORATIBOAK: • logotipoak eta papergintza •

ARGITALPENAK: Aldizkariak, Katalogoak, Bestetako Programak, Udal Aldizkariak, Folletoak, Liburuak, Mapak...

BERTZE EUSKARRIAK: Boletoak, pegatinek, lonak, roll up, panelak, poltsak, txapak...

EGUTEGIAK: SAKELEKOAK, PARETAKOAK, MAHAI GAINEKOAK...

Koskontako bidea, 7 31770 LESAKA T. 948 635 458
kulturkari@ttipi.eus www.kulturkari.com

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



PILI LIZARDIK 45 urte beteko ditu otsailaren 8an. Zorionak Arantzako saltserari zure laguneren partetik!



Lesakako **ANDONI** eta **XIANA** atxa-alabek urteak bete dituzte urtariraren 4an eta 18an. Aunitz urtez familia guztiaren partetik. Eskerrik asko bikote elkarrekin pasatzen ditugun momentu on guztiengatik.



Sunbillako **EKHI EZKURRA SANZK** 8 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak Leitzako familiaren partetik, merendola egiteko esperoan gaudel!



ANE BERGARARI, Real Madrileko etorkizuneko fitxajeari zorionak otsailaren 3an 29 urte bete zituelako. Agur zure lagunak.



OIHAN LUJAMBIO SANCHEZK 10 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Leitzako **AIALA BENGOTXEA ARANBURUK** urtariraren 25ean urte bat bete zuen! Zorionak eta muxu handi bat printxexa!



ANE JAUREGIK otsailaren 6an 3 urte bete ditu. Urte askoz eta muxu potoloak Doneztebeko familiaren partez.



Lesakako **MIREN YANCI CHARLESEK** 3 urte beteko ditu otsailaren 17an. Aunitz urtez aita, ama, amatxi, Iruñeko eta Nigeriako familiaren partetik. Muxu, muxu, muxu!



Zorionak **XABIER!** Otsailaren 19an 8 urte beteko ditu. Ongi pasa eguna eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Lesakako **UNAX BERAU IRIGOIENK** 8 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak eta muxuak familia guztiaren partetik.



Sunbillako **ARGIAK** otsailaren 3an 5 urte bete ditu. Aunitz urtez Gerendiain, Lekunberri eta Sunbillako familiaren partez eta berexiki guraso eta Oier anaiaren partez. Egun ederra izan da. Muxuak



AITOR eta **MADDI BALEZTENA TRUEBAK** bi urte beteko dituzte otsailaren 26an. Zorionak Eratsun, Doneztebe eta Arantzako familiaren partetik. Muxu erraldoi bana.



Legasako **GAXUXA ZELAIETA EULATEK** 9 urte beteko ditu otsailaren 18an. Aunitz urtez eta ongi pasa eguna Igantziako familiaren partetik!

argazki
soila
5
EURO

ALDIZKARIAN
eta
INTERNETEN

argazki
bikoitza
10
EURO

BAZTAN | BIDASOA | XARETA AISIALDIA eta GASTRONOMIA GIDA 2016

ASTE SANTUAN argitaratuko da

Zure enpresaren ERAKUSTOKIRIK ONENA

- Jatetxeak • Hotelak • Dendak
- Taxiak • Asialdiko enpresak
- Kanpinak • Tabernak
- Aterpeak • Museoak
- Lezeak • Turismoa...

9.
edizioa

• 6.000 ale
3 hizkuntzetan • Info-praktikoak
• Eskuko formatoa
• Banaketa: Turismo bulegoetan



Sartu nahi?

Informa zaituz: 943 63 54 58 edo publi@ttipi.eus

ikastolan

denok gara



ikastolenelkartea
nafarroa



www.ikastola.eus

**AURREMATRIKULAZIO GARAIA:
OTSAILAREN 15etik 19ra**

LABIAGA
Ikastola Bera
Altzate, 12 Eztegara, 32
94863.0172 948631558
31780 BERA-NAFARROA WhatsApp 608677446
bera@ikastola.eus www.labiagaikastola.eus



TANTIRUMAIRU
IKASTOLA - LESAKA

Arretxea, 13
31770 Lesaka
Tel 948 637 308
tantirumairu@ikastola.eus
www.tantirumairuikastola.com



AURREMATRIKULAZIO EPEA:

HAUR ETA LEHEN
HEZKUNTZA:
Otsailaren 15tik 19ra da

DBH, BATXILERGO ETA
LANBIDE HEZIKETA:
datak zehaztear daude



ARANTZA: HERRI ESKOLA
T. 948 634 104



ETXALAR: LANDAGAIN ESKOLA
T. 948 635 215



BERA: RICARDO BAROJA E.P.
T. 948 625 019
www.ricardobarojaeskola.net



BERA: TOKI ONA INSTITUTUA
T. 948 625 000
<http://iestokiona.educacion.navarra.es/>



IGANTZI: HERRI ESKOLA
T. 948 637 829



LESAKA: IRAIN E.P.
T. 948 638 006
<http://irain.educacion.navarra.es/>

GURE HERRIKO HIZKUNTZA ETA KULTURA BULTZATUZ | DOAN | INTEGRATZAILEA
JANTOKI ETA GARRAIO ZERBITZUAREKIN | TEKNOLOGI BERRIEZ BALIATUTA
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA HERRI ESKOLETAN | DBH, BATXILERGOAK ETA LH. BERTAKO INSTITUTUAN
2 URTETIK 20 URTE ARTEKO IRAKASKUNTZA JARRAIA ELKARLANEAN ETA KOORDINATUA

